



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014KO

AURREKONTU OROKORREN LEGE

AURREPROIEKTUAK GENEROAREN ARABERA

DUEN ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA



	Orr.
1. SARRERA	3
1.1. Egoera ekonomikoa eta Jaurlaritzaren lehentasunak	3
1.2. Kontzeptuak	5
1.3. Arauak	6
1.4. Proiektuaren deskribapen orokorra	7
2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA, ESKU-HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPARRUEI LOTUTA.	10
2.1 Demografia	12
2.2 Baliabide ekonomikoetarako sarbidea eta kontrola	13
2.3 Gizarte-baliabideetarako sarbidea eta kontrola	20
2.4 Parte-hartze soziopolitiko eta eragina	25
2.5 Erantzukidetasunezko gizarte-antolakuntza	30
2.6. Biolentzia	32
3. ADMINISTRAZIOKO LANGILEEK SEXUAREN ARABERA DUTEN ORDEZKARITZARI ETA BERDINTASUN ARLOAN DUTEN PRESTAKUNTZARI BURUZKO AZTERKETA	33
4. GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU PROGRAMEN AZTERKETA	42
5. DIRU SARREREN AZTERKETA.	48
6. GENERO ERAGINAREN AURRE EBALUAZIOA	53
7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK. AURREKONTUAK GENERO- IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA	60
8. AURREKONTU PROGRAMEN ERANSKINAK, SAILKA	
8.1 eranskina: Lehendakaritza	64
8.2 eranskina: Herri Administrazio eta Justizia Saila	67
8.3 eranskina: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	68
8.4 eranskina: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	70
8.5 eranskina: Ogasun eta Finantza Saila	78
8.6 eranskina: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	79
8.7 eranskina: Segurtasun Saila	83
8.8 eranskina: Osasun Saila	84
8.9 eranskina: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	86



1.- HITZAURREA.

1.1. EGOERA EKONOMIKOA ETA JAURLARITZAREN LEHENTASUNAK

Susperraldi ahuleko bi urteren ondoren, euskal ekonomiaren BPGk beherakada handia izan zuen 2012. urtean, Eustatek % -1,2an kalkulatu duena. Euskadik lau urtean bizi izan duen bigarren atzeraldia dugu hau, eta, 2009koa bezain sakona izan ez bada ere, erakutsitako bilakaera-profilak iradokitzen du bertatik ateratzeak denbora gehiago eskatuko duela.

2012ko atzeraldira itzultzeak erakutsi du -eta hala onartu du, azkenean, Nazioarteko Moneta Funtsak- austeritate porrokatu eta soil-soileko politikak ondorio suntsigarriak eragiten ari direla jarduera ekonomikoan, eta kontsolidazio fiskalaren beraren helburuak lortzeko posibilitateak murrizten dituztela.

2013ko aurreikuspenek aditzera ematen dute jarduera aurreko urteko intentsitate beraz jaitsiko dela (% -1,2), eta, barne-eskaria berreskuratu ahala, hazkundera positiboa izango dela 2014tik aurrera.

Finantza-aberastasun garbia suspertu ahala eta eskariko inflazio-tentsiorik ez dagoen neurrian, kontsumo pribatua izango da barne-eskarian suspertzen hasiko den lehen osagaia. Bestalde, kontsumo publikoak tasa negatiboekin jarraituko du, Administrazio Publikoak egiten ari diren kontsolidazio fiskaleko prozesua luzatu delako. Eskaria suspertzen den neurrian, kapitalaren eraketa gordinak beherakada geldituko du, eta espero da 2015etik aurrera indarberritzea.

Jarduera ekonomikoaren hazkunde leun horrek, % 1,5etik beherakoak izatea espero diren BPGren hazkunderekin, 2015a arte atzeratzen du enplegu-sorkuntza: hori horrela, epe ertainera ez da espero krisiak irauten duen bitartean suntsituriko enplegua suspertzea. **2013an, 20.000 enplegu baino gehiago suntsitzea espero da, eta 2014an, beste 6.000.**

Egoera ekonomiko horretan, Eusko Jaurlaritzak bere jarraibide ekonomikoetan nabarmentzen du **lehentasuna dutela**, batetik, **pertsonen oinarritzko premiak asetzen direla bermatzeak** (batez ere hezkuntza-premiak, osasun-premiak eta gizarte-ongizatekoak), eta, bestetik, **langabeziaren kontrako borrokak** (enplegu-politika aktiboen bidez eta lehiakortasuna hobetuz).



- Horregatik, Eusko Jaurlaritzak berriro bideratuko du Euskadiko politika sanitarioa, **pertsonak jarritz sistema publiko sanitarioaren ardatz nagusi gisa**, eta beraren jardunen **helburu nagusia izango dira herritarrak eta haien osasun-premiak**, ahalik eta efizientzia-mailarik handienak lortzeko.
- Hezkuntza-politikaren helburua da: ikasleen aukera-berdintasuna eta garapen integrala bermatzea, irakasle-lanbideari prestigioa ematea, hezkuntza-administrazio berritzailea indartzea, Lanbide Heziketaren eredu berria garatzea, bizitza osoan ikasteko aukera ematea, Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea lortzen laguntzea, Euskadiko produkzio-sistemaren premiei erantzungo dion politika zientifikoa indartzea eta horri eustea, **herritarrak prestatzea etorkizuna izango duen Herrialdean elkarrekin bizitzeko, eta, azkenik, pertsonen garapen integrala ahalbidetzea**.
- 2014ko aurrekontuetan ere kontuan hartuko dira familientzako eta behartsuenentzako gizarte-laguntzak eta komunitate-garapena ahalbidetzen duten laguntzak. Era berean, gizarte-politiken eta emandako laguntzen kontrola eta jarraipena egitea proposatzen da; horrez gain, arreta berezia eskainiko zaie gizarte-iruzurra kontrolatzera bideraturiko neurriei. **Behartsuenei gizarte-laguntzak ematen jarraituko da, eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna handiagoa izango da**, gizarteratzea ahalbidetuz eta bazterketaren kronifikazioa saihestuz, diru-sarrerak bermatzeko errentari gizarte-kohesioko tresna gisa balioa ematea indartzeko. Herrialde batek gizarte-kohesioaren bitartez soilik lortzen du heldutasuna; aurrera egingo badu, herritar guztiek egin behar dute aurrera.
- Krisi ekonomikoaren ondoriorik latzena da lanpostuak galtzen direla, eta horrek Euskadiko milaka familiei eragiten die. **Horrenbestez, enplegua sortzea izango da Jaurlaritzaren jardun politikoaren oinarritzko ardatza eta lehentasunezkoa**; horretarako, bi jardun-ildo nagusi erabiliko ditu: (1) enplegu-politika aktiboak eta (2) lehiakortasuna hobetzeko eta ekonomia suspertzeko politikak; horien bitartez, enplegua sustatzeko.



1.2. KONTZEPTUAK

Aurrekontua da gobernu baten aukera politikoak islatzen dituen agiria: diru-sarrera eta gastuen plangintzaren bitartez garapen eta hazkuntza ekonomikoko helburuak lortzeko erabiltzen den tresna. Aurrekontuen bitartez, gobernuak lehentasunak ezartzen ditu, eta lan egiten du herritarren premiak betetzeko. Horrela, aurrekontuen bitartez, enplegua susta daiteke, baita prezioen egonkortasuna, hazkuntza ekonomikoa, ingurumenaren iraunkortasuna eta beste hainbat gauza ere. Izan ere, Pregs Govender-ek dioenez:

“Aurrekontu publikoak herrialde baten balioak islatzen ditu: nor estimatzen duen, noren lana balioesten duen; horren ondorioz, nor saritzen duen, eta nor ez duen balioesten, zer ez duen balioesten, eta noren lana ez den balioesten, ez saritzen”

“Sexistak ez” diruditen erabaki politikoek eragin ezberdina izan dezakete emakume eta gizonengan, nahiz eta ondorio horiek ez aurreikusi, eta ez desiratu. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egiten da espero gabeko ondorio negatiborik ez izateko, eta politiken kalitate eta eraginkortasuna hobetzeko”.¹

Hori horrela izanik, esan daiteke generoaren araberako eraginaren txostenak laguntzen duela herritarren beharrian eta interesak hobeto ezagutzen, eta, horrela, aukera ematen du ikusteko desberdintasunak zein eremutan diren nabarmenago, eta, ondorioz, zeinek duen lehentasun gehiago aginte publikoen esku-hartzea jasotzeko. Hartara, agerian geratzen da politika publikoak ez direla generoarekiko neutroak, baizik etaitsu edo sorgorak generoarekiko. Hau da, ez dituzte kontuan hartzen emakume eta gizonen eginkizun eta jarrerak, zeinak, jakina denez, gizarteak zehazten baititu: emakumeak ez ditu jartzen gizonen egoera berean, indar gutxiago baitute ekonomia-, gizarte- eta politika-alorretan; horrek eragiten du ekintza edo politika jakin batek aukera gutxiago izatea emakumeen mesederako izateko edo desberdintasunak murrizteko.

¹ Generoaren araberako Eraginaren Ebaluazioak egiteko Europar Batasuneko Gidaliburua



1.3. ARAUAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18-20 artikuluetan xedatutakoa betez egin da agiri hau, eta, bereziki, 19. artikuluan xedatutakoa betez, honako hau baitio: «1.– *Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.*»

Gainera, 4/2005 Legeak 18.1 artikuluan dioenez, «*Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteei modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.*».

Aurrekontuak egiteari dagokionez, honakoa dio Berdintasunerako 4/2005 Legearen 14. artikulua: «*Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.*».

Bestalde, txosten hau egitean, kontuan hartu dira «genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauatzeko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak». Jarraibide horiek, berriz, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren **abuztuaren 21eko 40/2012 EBAZPENEAN** xedatu ziren, 4/2005 Legea betetzeko.

Aipatu behar da ezen, txosten hau ematean, oraindik indarrean dagoela Berdintasunerako V. Plana, baina Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak dagoeneko onartuta daukala VI. Plana, eta kontsulta publikoko fasean dagoela. Txosten hau egiteko, kontuan izan dira VI. Planak jasotzen dituen azterketa batzuk, zeinak V. Planean eta aurrekoetan hausnartu eta eztabaidatutakoaren eta haietatik ikasitakoaren ondorio baitira.



1.4. PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

ADMINISTRAZIO EGINTZAREN PROPOSAMENA EDO ARAU PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.- Aipatu administrazio-egintzaren proposamena edo arau-proiektuaren izena:

Lege-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen.

2.- Aipatu zer sailek eta zer zuzendaritzak sustatzen duen:

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ogasun eta Finantzarako sailburuordeak proposatuta.

3.- Aipatu, hala egokituz gero, proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten beste arau, plan eta abar batzuk:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.
- 8/1996 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteko Finantzena
- 6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen.
- 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa.
- Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
- 1/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, "Tribunal Vasco de Cuentas Públicas" / "Herri-Kontuen Euskal Epaitegia"rena.
- 2/2004 Legea, Otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzkoa.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.
- 209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko



ordainsari-osagarriei buruzkoa.

- 94/2008 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Herriko Unibertsitateari egin beharreko ekarpen arrunta zehazteko irizpideak ezartzen dituen.
- 13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.
- 27/1983 Legea, azaroaren 25koa, Autonomia Elkarrekin osorako erakunde eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakunde arteko harremanei buruzkoa.
- 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa, eta, bertako Azken Xedapena baliatuz, hurrengo ekitaldietan ere, ez bada hurrengo ekitaldietarako metodologia onartzen duen lege berririk sortu.
- Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektua 2014rako.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa; irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaren bitartez aldatu zen.
- 5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoa sortzeko buruzkoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzeko, eta 88/2008 Dekretua, maiatzaren 13koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institutuaren antolakuntza-eta jardura-araudia onartzen duena.
- 9/2007 Legea, ekainaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko; 159/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa buruzkoa, eta 160/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitze baldintzak arautzen dituen.
- 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa, eta 139/2012 Dekretua, uztailaren 17koa; horren bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardura noiz hasiko den zehazten da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren giza baliabideak erakunde autonomo horri atxikitze baldintzak arautzen dira.
- 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena.
- 3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa; eta 82/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 7/2007 Legea, apirilaren 2koa, Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatutuarena.
- 14/1988 Legea, urriaren 28koa, Goren-kargudunen lantzeriei buruzkoa.
- 130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekieen estatutu pertsonala arautzeko dena.
- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.
- 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.
- 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzkoa.
- 8/2008 Legea, ekainaren 25koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren



Legea aldatzen duena.

- 7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sorrerari buruzkoa.
- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa.
- Gobernu Kontseiluak onetsitako jarraibide ekonomikoak (2013ko ekainaren 11ko erabakia) eta Ogasun eta Finantza Sailak onetsitako jarraibide teknikoak, Gobernu Kontseiluak sailei jakinarazitakoak.
- Konstituzio Auzitegiaren doktrina aurrekontu orokorren legeei buruz.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina Euskadiko aurrekontu orokorren legeei buruz.

4.- Azaldu administrazio-egintzaren proposamenaren edo arau-proiektuaren helburu orokorrak:

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorren onespena eta edukia.

5.- Azaldu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko xedeak:

Egia da Berdintasunerako 4/2005 Legeak 14. artikuluan dioela administrazioek, urtero, aurrekontuetan izendatuko eta zehaztuko dituztela lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak; hala ere, errealitatean, EAEko 2014ko aurrekontuen lege-aurreproiektuak **ez du berariazko zenbatekorik izendatzen** berdintasun-politiketarako. Salbuespena da Emakunderen aurrekontua; izan ere, hori legean zehazten da, erakunde autonomoaren izaera juridikoa duelako.

Hala ere, aurrekontu orokorren aurreproiektuari aurrekontu-memoriak eransten zaizkie, eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta euskal arlo publikoa osatzen duten gainerako erakundeen jardueraren helburu modura azaltzen dituzte. Sail guztiek aurkeztu dituzten aurrekontu-memoriak aztertu eta gero egin da txosten hau.

2.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA, ESKU-HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPARRUEI LOTUTA

EAEko biztanleen % 51 emakumeak dira, eta gizonezkoak, aldiz, % 49; alabaina, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko EAEko datuei erreparatuta, ikus daiteke bien arteko harremanek eta posizio sozialak hierarkizatuta jarraitzen dutela. Hona hemen:



- Euskadin, gizonen errenta pertsonala emakumeen errenta pertsonalaren bikoitza da oraindik ere.
- Enplegu-tasari dagokionez, emakumeek enplegurako sarbide txikiagoa dutela ikus daiteke.
- Pobreziaren feminizazioa fenomeno gorakorra da Euskadin.
- Lan-kontraturik ez duten soldatapekoen % 90 emakumeak dira. Lanaldi partzialean, emakumeak dira nagusi; izan ere, kontratu partziala dutenen % 82,3 emakumeak dira.
- Genero-rolaren eraginak hezkuntza-prestakuntzaren hautaketa baldintzatzen du.
- Eusko Jaurlaritzaren Sail gehienek ez dute parekotasun-printzipioa betetzen. Eusko Legebiltzarrak ere ez. EAEko udalerrien % 22 baino ez daude emakumeen agintepean.
- IBEXko enpresetako hamar kontseilaritatik soilik 1 da emakumea.
- Etxeko lanak eta inoren laguntza behar duten pertsonak eta adingabeak zaintzeko zereginak gehienbat emakumeen gain geratzen dira, argi eta garbi. Lan egiten duten emakumeen erdiak egunean 5 ordu edo gehiago ematen dituzte seme-alabak zaintzen.
- Gizonen % 3,1ek baino ez du diru-laguntza eskatu seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzia hartzeagatik.
- Ordaintzen ez den etxeko lana BPGren % 28,7 izango litzateke.
- Euskadin, genero-indarkeriarekin loturiko 400 kasu izaten dira hilean.

Atal honetan, emakumeek eta gizonek EAEn duten egoeraren diagnostika biltzen da, aurrekontu-programen eraginak dituen gizarte-testuingurua kontuan hartuta. Horrela, irizpide jakin batzuen arabera antolatuta, antzeman diren sexuaren ondoriozko ezberdintasunak jaso dira. Diagnosi honek, gero, aukera emango du balioztatzeko 2013. urterako aurrekontuek eragin positiboa edo negatiboa izango duten antzemandako ezberdintasunak murrizten edo kentzen, eta Euskadiko gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzen.

Egiturari buruzko atalean aipatu den bezala, irizpideak ezartzeko kontuan hartu dira Berdintasunari buruzko 4/2005 Legea, Berdintasunerako V. Plana eta 40/2012 Ebazpenean ezarritako jarraibideak. Hona hemen irizpideok:



- 1.1. DEMOGRAFIA
- 1.2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA
 - 1.2.1. Ekoizte-lana eta autonomia ekonomikoa
 - 1.2.2. Ugaltze-lana
 - 1.2.3. Pobrezia eta gizarte-bazterketa
- 1.3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA
 - 1.3.1. Hezkuntza-baliabideak
 - 1.3.2. Osasun-baliabideak
 - 1.3.3. Kultura- eta kirol-baliabideak
- 1.4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA
 - 1.4.1. Parte-hartzea erakundeetan
 - 1.4.2. Parte-hartzea beste organo batzuetan
- 1.5. ERANTZUKIDETASUNEZKO GIZARTE-ANTOLAKUNTZA
 - 1.5.1. Denboraren erabilera
 - 1.5.2. Zaintzarako zerbitzuak
- 1.6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, sarean kontsulta daiteke honako webgune hauen bitartez:

- **Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2012, Emakunde.**
http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/cifras_ant/es_emakunde/adjuntos/cifras_2012_es.pdf
- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, Eustat.**
http://www.eustat.es/estadisticas/idioma_c/tipo_10/arbol.html#axzz2HNFazcrw

Iturri hauek ere erabili dira:


- Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Txosten Sozioekonomikoa
- Emakumeak eta gizonak Euskadin. 2012. EUSTAT
- Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012. Eusko Jaurlaritza



1. DEMOGRAFIA: EAE

EAEko BIZTANLERIA
2.184.606


□ Mujeres
■ Hombres



2010eko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2.184.606 biztanle daude, eta horietatik 1.117.734 emakumeak dira, hau da, %51,2. Jatorriz atzerriko biztanleak 179.583 dira (%8,2). Emakumeen %7,5 eta gizonen %7,2 Estatutik kanpo jaio dira.

2010ean, Euskadin 854.114 etxe zeuden eta batez beste etxe bakoitzean 2,48 kide zeuden. Hau Estatuko daturik baxuena dugu. Estatuan etxe bakoitzean, batez beste, 2,67 kide baitaude.


Bizi itxaropena , sexukako jaiotzaaren arabera



Aipamen berezia egin behar zaio indikadore honen hazkundeari Euskal Autonomia Erkidegoan hamarkada eskasean; izan ere, 2000.urtean Euskal herriko biztanlearen bizi-itxaropena 75,87 urtekoa zen gizonentzat, eta emakumeentzat, aldiz, 83,89 urtekoa; 2011. urtean 79,25ekoa da gizonentzat eta 85,65ekoa emakumeentzat. Azken zifra hori EB-27 herrialde guztietako altuena da.

6,4 urteko ezberdintasun hori zehaztu behar da; izan ere, ezgaitasunik gabekoen bizi-itxaropena zertxobait txikiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino.

Bataz besteko amatasun adinaren garapena



Azken hamarkadan, bataz besteko amatasun-adinaren atzerapena suertatzen da, 28,8 urtetik 1975ean eta 32,4 ra 2010.ean. Hori da daturik altuena Autonomia Erkidegoetan, eta horrela gainditu da urte bat baino gehiagotan Estatu osoaren bataz bestekoa. Ondorioz, euren seme-alabak jaio direnean 30-34 urte dituzten emakumeen kopurua bikoiztu egin da 42,5 bitartera; gainera, hurrengo adin-segmenturik ohikoena 35 eta 39 urte artekoa da ondorengoak dituzten emakumeen artean.




2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA


2.1. EKOIZTE LANA ETA AUTONOMIA EKONOMIKO

2.1.1 JARDUERA TASA


Jarduera-tasaren bilakaera



Jarduera -tasa adinaren arabera




Jarduera-tasa ikasketen arabera



Jarduera-tasaren bilakerak erakusten du emakumeak nola joan diren sartzen gradualki eta nola joan den murrizten generoen arteko distantzia, nahiz eta 13,7 puntuko distantzia mantentzen den. Azken bi hamarkadatan, emakumeen kopurua 11 puntutan igotzen da; gizonena, berriz, 5 puntutan jaisten da. **Adina gora doan heinean, genero arteko distantzia areagotu egiten da.** 2011n, genero-arrakala desagertu egin da 14-16 urteko tartearantzat. Baiezta genezake belaunaldi berrietako gizon eta emakumeak antzeko neurrian sartzen direla lan-merkatuan.

Lan-merkatuan sartzerakoan, heziketa-maila handiagoa izateak laguntzen du genero arteko ezberdintasuna txikiagotzen. Lehen-mailako ikasketak ditzuten emakumeen okupazio-tasa gizonezkoen erdia da. Genero-eten hori erdi-mailako ikasketak dituztenen artean mantentzen da; goi-mailako ikasketak dituztenen artean, ordea, desagertu egiten da. **Zenbat eta ikasketa maila altuagoa, orduan eta berdintasun handiagoa dago gizon eta emakumeen okupazio-tasaren artean.**


Jarduera-tasa bere gain dituen seme-alaben kopuru eta sexuaren arabera



Oro har, antzematen badugu ere seme-alabeen kopuruaren arabera lan-jarduera tasa progresiboki handituz doala, gizon eta emakumeen jardueratasaren ezberdintasuna handituz doa poliki-poliki ondorengoak gehituz doazen heinean; izan ere, Euskal Herriko etxeetan emakumeen gain geratzen da ugaltze-lanaren karga handiena. Sexua gorabehera, bi seme-alaba edo gehiago dituzten pertsonak agertzen dute okupazio-tasarik altuena, eta,aldi berean, distantziarik handiena gizon eta emakumeen artean (63,2 versus 82,6). Distantzia hori txikiagoa da ondorengorik gabeko pertsonengan.

2.1.2 OKUPAZIO TASA


Adinaren araberako okupazio tasa



Jarduera-tasarekin gertatzen den moduan, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna aldatzen da adinaren, heziketa-mailaren eta euren karguan dituzten seme-alaben kopuruaren arabera. 35 urte baino gutxiago dutenen artean, ez dago ia-ia genero ezberdintasunik (16-24 urte bitartekoen artean emakumeen okupazio-tasa zertxobait handiagoa da gizonena baino), 35 urtetik aurrera, generoen arteko distantzia nabarmen handitzen da (bereziki 45-50 urte bitartekoen artean).

2011n, lehen-mailako ikasketak dituzten emakumeen okupazio-tasa gizonenokoenaren erdia da. Genero-eten hori erdi-mailako ikasketak dituztenen artean mantentzen da; goi-mailako ikasketak dituztenen artean, ordea, desagertu egiten da. Kualifikazio txikiagoa eskatzen duten okupazioek genero ezberdintasun-handiagoak markatzen dituzte; ikasketa maila altuago batek, ordea, generoen arteko diferentzia nabarmen txikiagotzen du. Izan ere, zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta berdintasun handiagoa dago emakume eta gizonenokoen okupazio-tasen artean. Egiaz, **goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen okupazio-tasak zertxobait gaitzitu du gizonenokoen.**

Ikasketen araberako okupazio tasa



OGASU

Sexu-funtzioen arabera, diferentzia handiak daude lan-jardueraren eremuan. Oraindik ere zenbait sektore guztiz maskulinizatuak daude, esate baterako eraikuntza edota industria; zerbitzu-sektorea, ordea, bereziki emakumeek betetzen dute. Emakume gehien hartzen dituzten jarduera eremuak Administrazio Publikoa (%31,9) eta Merkataritza (%25,9) dira.


Hezkuntza Publikoaren eremuan aritzen da lanean pertsona kopururik altuena, eta horietatik gehienak emakumeak dira. Lanbide Heziketa, Unibertsitatea eta kirol ikaskuntzarekin erlazionatutako ikasketak izan ezik, oso eremu feminizatua da hezkuntza. Espero zitekeen moduan, zaintzaren inguruan generoaren mandatuarekin egiten den asoziazioagatik, emakume okupatuen portzentairik handiena Haur Hezkuntzan azaltzen da. (% 91,5)

Osasun publikoan, okupatutako 10 pertsonetatik 7 emakumeak dira. Sektore honek garbi adierazten du nola mantentzen diren generoen rol tradizionalak. Matrona, erizaintzako pertsonala eta erizain laguntzaileen artean, 10etik 9 emakumeak dira; mantentze-zerbitzuko pertsonalean, aldiz, 10etik 9 gizonak dira.


Gizarte-zerbitzuak dira lan eremurik feminizatuenak. 10 pertsonetatik 7 emakumeak dira, eta zifra hori handitu egiten da 9ra, garbitzaile, Klinika laguntzaile edo gizarte-langileen kasuan.

Krisi ekonomikoak zerbitzu-sektoreari eragiten badio, kalte handia egingo dio emakumeen okupazioari, emakumeen % 86,9k sektore horretan egiten baitu lan.

Emakumeak




Gizonak



2.1.3. LANGABEZIA TASA

Langabezia-tasaren bilakaera




Generoaren araberako alderik txikiena duen adierazlea da langabezia-tasa, bai Espainiako nazionalitatea dutenen artean, bai atzerriarren artean. Atzerriarrei dagokienez, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino 4 puntu txikiagoa da, eta fenomeno hori berria dela esan dezakegu langabezia generoaren ikuspegitik begiratuta aztertuz gero, aurreko bi urteekin alderatuta. 2006 eta 2011 artean, langabezia-tasak handitu egiten dira biztanleria osorako. Genero arteko distanziaren murrizte nabarmen bat antzematen da, pasatzen da gizonen alde 17,1 puntuko diferentzia izatetik ia desagertzera eta. Gainera, **2012an emakumeen langabezia-tasa (%10,2) gizonetzkoena baino txikiagoa izatera (%12,1) pasatzen da.**

Krisi ekonomikoaren ondorioz, nabarmentzen da urtebete baino gehiago lan bila dabilen pertsonen ehuneko handi baten areagotzea. Gizonen kasuan, 2011rako datua okerragoa da; izan ere, euren % 26,0k -gutxi gorabehera- bi urte baino gehiago daramatza lan bila.


2013ko lehendabiziko hiruhilekoan, **Euskal Herriko etxeetako %5,4n pertsona aktibo guztiak langabezian daude.**



2.1.4 ETXEBIZITZA ETA GAZTEEN EMANTZIPAZIOA ETXETIK



Etxebizitza premiarik handiena 18-44 urte bitartekoek dute, gizon zein emakume izan. Adin tarte horretan, 108.131 eskatzaile daude, horietatik 48.029 emakumeak dira eta 60.102 gizonak; beraz, % 44,4 emakumeak dira eta %55,5 gizonak. Eskarari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko alderik handiena 35-44 urteko tartean gertatzen da. Baina premia 25-34 urtekoek dute, bi kasuetan.



Prestakuntzari dagokionez, ezberdintasun handiak daude etxebizitza eskatzen duten emakume eta gizonen artean. Ikasketarik gabeko edo lehen-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, gizonak %72,3 dira; aldiz, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean, % 40,3 baino ez dira gizonak.


2.1.5 ERRENTA PERTSONALA

Pertsonen batz besteko errentaren garapena aztertzen badugu, azken urteotan argi ikus dezakegu emakumeena gizonena baino txikiagoa dela (11.000 euro gutxiago, batez beste).


Genero-etenaren goranzko joera kjarraitzen du, eta adin tarte guztietan mantentzen da: adina aurrera doan heinean handitzen da, eta berriro erretiro adinean hasten da jaisten.



Laneko errenta pertsonala




Laneko errenta pertsonala lanbidearen arabera




Kategoria guztietan antzematen da gizon eta emakumeen arteko soldatem aldea, eta bereziki zuzendaritza eta gerentzia postuetan areagotzen da, baita pertsonal profesional teknikoetan ere. 2009 arekin alderatuz, 2010ean lan-jarduera eremuetan genero distantzia handitu egin da, aurreko urteko 6.387 eurotik 7.003 eurora pasatzen da, eta alderik handienak Zerbitzu sektorean antzematen dira, hain zuzen ere emakume gehien diharduten eremuan. Soldata arteko alderik handiena lan kontratu mugagabea duten pertsonen artean suertatzen da, eta 2010ean, egoera hori areagotu egin da, aurreko urtekoekin alderatuz. Soldata-berdintasunera hurbiltzen gaituzten datu bakarrak, berdintasunera heldu ez arren, iraupen zehatzeko kontratuekin erlazionatzen ditugu: horietan genero arteko distantzia urteko 1.500 eurotan kokatzen da, gutxi gora behera.

2.1.6 SOLDATEN EZBERDINTASUNA, PREKARIETATEA ETA EZ AKTIBOTASUNA



2011n, kontraturik gabe soldata jasotzen zuten guztietatik, 10etik ia 9 (%86,6) emakumeak dira. Halaber, kontratu finkoa edo mugagabea duten emakumeen portzentaia txikiagoa da gizonena baino, eta, aitzitik, emakumeak gizonen aurretik jartzen dira aldi baterako kontratuetan (%53,7). Gainokupatuta dauden pertsonen ia %75 gizonak dira (egunean 8 ordutik gora lan egiten dutenak), baita okupatu hertsien %55,5a (8 ordu lan egiten dutenak); eta okupatu edo landunen gainerakoan (8 ordutik behera), gizonak ez dira %20ra iristen. Kontratu partziala emakumeena da; **horrela, kontratu partziala duten pertsonen %82,3 emakumeak dira.**

Prekarietateak gehiago eragiten die emakumeei gizonen baino. Soldateko aldi baterako edo kontraturik gabeko emakumeen portzentaia %26,5ekoa da; gizonena, berriz, %19,1. EAE n, 2007an emakumeen soldata gizonena baino %26,5 txikiagoa da.



2010. ean, pertsona ez aktiboen %60 emakumeak ziren. Ez aktibotasun horren arrazoi nagusia etxeko lanetan aritzea da (emakume ez-aktiboen %43); arrazoi horren atzetik, erretiroa ez beste pentsioen bat jasotzea (%19,9). Pertsona ez aktiboen %40 baino gutxiago gizonak dira, eta 10etik 7 erretiroa edo aurre-erretiroa hartu dutelako daude egoera horretan; **gizon ez aktiboen artean, berriz, %4,3 soilik daude egoera horretan etxeko lanetan dihardutelako**




2.2. UGALTZE LANA

2.2.1 SEME ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIAK ETA MURRIZKETAK

Familia eta lana uztartzea

■ Gizonak ■ Emakumeak



2012ko datuen arabera, gizonen artean %3,1ek soilik eskatu du diru-laguntza seme alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik; 2009an, berriz, %3 izan ziren. Lanaldia laburtzeko eskatu dituzten gizonak % 7,7, baino ez dira, eta 2009an, berriz, %6,28 izan ziren.

Argi ikusten da bateragarritasunera bideratutako neurrien erabilera feminizatua dagoela, eta esan gabe doa ez direla eraginkorrak izan lana sexuaren arabera banatzen duen gizarte-eredua aldatzeko.

Neurri horien feminizazioaren oinarria, azken batean, ordena sozioekonomikoko patriarkala da, non, alde batetik, ugaltze-lana emakumeengan uztea sustatzen den, eta, bestetik, prestutasuna eta presentzia lehenesten dituen produkzio-ereduari eusten zaion. Horren guztiaren ondorioz, familia eta lana bateragarri egiteko neurrien fenomeno gaiztoa sortzen ari da.

2.2.2 ETXEKO EKOIZPENA ETA BPGarekiko ERLAZIOA


2012ko datuen arabera, gizonen artean soilik %3,1ek eskatu du diru-laguntza seme alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik; 2009an, berriz, %3 izan ziren. Lanaldia laburtzeko eskatu duten gizonak % 7,7, baino ez dira, eta 2009an, berriz, %6,28 izan ziren.

Argi ikusten da bateragarritasunera bideratutako neurrien erabilera feminizatua dagoela, eta esan gabe doa ez direla eraginkorrak izan lana sexuaren arabera banatzen duen gizarte-eredua aldatzeko. Neurri horien feminizazioaren oinarria, azken batean, ordena sozioekonomikoko patriarkala da, non, alde batetik, ugaltze lana emakumeengan uztea sustatzen den, eta, bestetik, prestutasuna eta presentzia lehenesten dituen produkzio-ereduari eusten zaion. Horren guztiaren ondorioz, familia eta lana bateragarri egiteko neurrien fenomeno gaiztoa sortzen ari da.



Etxeko lanen ekoizpena

■ Gizonak ■ Emakumeak




2.3. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

2.3.1 POBREZIA INDIBIDUALAREN BANAKETA ETA ARRISKUA

Mantentze pobrezia

■ Pobrezia arriskua ■ Ongizate ezaren arriskua



Pobrezia-arriskuan dauden pertsonen %75,5 emakumezkoak dira: ez dute bakarrik bizi ahal izateko diru-sarrera nahikorik.


Pobrezia-arriskua nabarmenagoa da pertsona nagusia emakumezkoa den kasuetan, hau da, beharrian oinarritzkoenei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten etxeetan. Etxeko kide nagusia emakumean denean, ongizaterik ez izateko arriskua %28,1ekoa da, hots, ongizatearen gutxieneko mailari eusteko ezinbestekoak diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez arriskua. Aldiz, kide nagusia gizona baldin bada, % 12 daude egoera horretan.

Mantentze –pobreziaren arriskuak (premia oinarritzkoenei aurre egiteko behar adina diru-sarrera nahikorik ez izatea) eragin handiagoa izaten du kide nagusia emakumezkoa den etxeetan. Egoera horretan daude kide nagusia emakumea duten etxeetako pertsonen %12,6; aldiz, erreferentziako pertsona gizonezkoa dutenen kasuan, %5,8 dira. Koloka orokorrari dagokionez, kide nagusia emakumea duten etxeetako pertsonen % 31,8 ongizaterik ez izateko arriskuan dago; kide nagusia gizona dutenen kasuan, berriz, % 16,8 dago egoera horretan.



Metatze pobrezia

Emakumeak Gizonak



Pobrezia-arriskuan dauden pertsonen % 75,5 emakumezkoak dira: ez dute bakarrik bizi ahal izateko diru-sarrera nahikorik.

Pobrezia-arriskua nabarmenagoa da pertsona nagusia emakumezkoa den kasuetan, etze horietan ez baitute beharizan oinarritzkoenei aurre egiteko diru-sarrera nahikoa. Etxeko kide nagusia emakumea den kasuetan, % 28,1 daude ongizatearik ez izateko arriskuan, hots, ez dute diru-sarrera nahikorik ongizatearen gutxieneko mailari eusteko ezinbestekoak diren gastuei aurre egiteko; aldiz, kide nagusia gizona baldin bada, % 12 daude egoera horretan.


Mantentze -pobreziaren arriskuak (premia oinarritzkoenei aurre egiteko behar adina diru-sarrera nahikorik ez izateak) eragin handiagoa izaten du kide nagusia emakumezkoa den etxeetan. Kide nagusia emakumea duten etxeetako pertsonen %12,6 egoera horretan daude; aldiz, erreferentziako pertsona gizonetzkoa dutenen kasuan, %5,8 daude. Koloka orokorrari dagokionez, kide nagusia emakumea duten etxeetako pertsonen %31,8 ongizaterik ez izateko arriskuan dago, eta kide nagusia gizona dutenen kasuan, %16,8.

3. GIZARTE BALIABIDEETARAKO SARBI

3.1. HEZKUNTZA BALIABIDEAK

3.1.1. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASLEAK


Ikasleak Hezkuntzan



Hezkuntza, hein handi batean, pertsonen gizarte-estatusa baldintzatzen duen baliabidea da; izan ere, eragina du lanbidean; beraz, baita diru-sarreretan eta denboraren banaketan ere. Lehen etapan, derrigorrezko hezkuntzan, generoen arabera rola ez dute baldintzatzen ikasgeletan mutilek eta neskek duten presentzia. 2012/2011 ikasturtean, mutikoen eta neskatuen proportzioa antzekoa izan zen: parekoa. Aldea errendimendu akademikoan sumatzen da; izan ere, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortzen dituzte. Ikasle errepikatzaileen artean, gizonen proportzioa handiagoa da emakumeena baino.

3.1.2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDOKOA

Goi-mailako LH, adararren arabera >150 ikasle




Bigarren etapan, ordea, bereizteko prozesua hasten da. Batxilergoko eta Lanbide Heziketako espezialitateak aukeratzean, areagotu egiten da bereizketa hori. Erdi-mailako Lanbide Heziketan emakumeak %38,4 baino gutxiago dira, eta % 40,6, goi-mailakoan. Generoen arabera rola oso handia da adarrak aukeratzekoan. Erdi-mailako prestakuntzan, adar feminizatuak dira **irudi pertsonala, osasuna, zerbitzu soziokulturalak, eta ehungintza, jantzigintza eta larrugintza** (gizonak %20 baino gutxiago dira). Erdi mailako LHko ikasleek %26,45 adar horietan dago matrikulatuta.


3.1.4. UNIBERTSITATE AURREKO ETA UNIBERTSITATEKO IKASKETAK



Sarbidetuetan matrikulatutako ikasleak



Ikasle Matrikulatuak




Unibertsitate aurreko zein unibertsitateko ikasketetan ere agerian jartzen da ikasleen generoaren araberako espezializazioa. Batxillegoko hautuak baldintzatzen du, printzipioz, unibertsitate ikasketen aukera. Zientzia eta teknologian soilik betetzen da parekotasun printzipioa. Hala, ikasleen presentzia %25 eta %35 artean kokatzen da Arte plastikoetan, Irudia eta Diseinua, eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak ikasketetan. Hori horrela izanik, feminizazio gehien honako gradu hauetan dago: Ingeles ikasketak, Hizkuntza Modernoak eta Kudeaketa, Biologia, Zuzendaritzako laguntza, Haur Hezkuntza eta Gizarte Lana; 10 ikasle, 2 baino gutxiago dira horietan guztietan gizonak. Arkitekturan eta Ingenieritzan, emakumezko ikasleen proportzioa % 25 da; titulazio batzuetan parekotasunetik hurbil egon arren, 18 titulaziotatik 9tan maskulinizazioa erabatekoa da, 2 emakume baino gutxiago baitago 10 ikasleko. Unibertsitateko ikasketen artean, diplomaturak dira feminizatuenak. 2009/10 ikasturtean, emakumeak %70,9 ziren diplomatura ikasten ari zirenen artean. Ingenieritza teknikoan, guztiz alderantzizkoa gertatzen da: 2009/10 ikasturtean matrikulatutako ikasleen %74,2 gizonak ziren.



3.2. OSASUN BALIABIDEAK


3.2.1 OSASUN ARAZOAK DITUEN BIZTANLERIA




Osasuna funtsezkoa da biztanleentzat. Azken 20 urteetan, osasun-arazoak zituzten pertsonen ehunekoak behera egin du, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Esate baterako, 1989. urtean, emakumeen %10ek eta gizonen %7,8k zeukaten osasun-arazoren bat, eta 2009. urtean, berriz, bi puntu gutxiago dira osasun-arazoak dituzten emakumeetan, eta puntu bat gutxiago, osasun-arazoak dituzten gizonetan.

3.2.2 KONTSULTETARA JOATEA ETA OSPITALERATZEAK

Kontsulta medikoetara joan diren biztanleak 2009




Ospitalerazteen batez besteko egonaldia, egunak



Emakumeek gehiago erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak, batez ere osasun-zentroko edo anbulatorioko kontsultak. Dena den, ospitaleak erabili eta ospitalean egoteari dagokionez, gutxiago erabiltzen dituzte emakumeek gizonak baino. Esaterako, 2009.urtean, emakumeen %78,8 joan da azken urtean kontsulta medikoren bat egitera, eta ehuneko 5 gutxiago dira hori egin duten gizonak. 2009ko adirazleek erakusten dute, oro har, emakumeak denbora gutxiago egoten direla, batez beste, gizonak baino (6,72 egun eta 7,48 egun hurrenez hurren).

3.2.3. DROGOMENDEKOTASUNA

Kanabis-kontsumoaren ehunekoaren bilakaera




Drogen kontsumoa da pertsonaren osasunari gehien eragiten dion elementuetako bat. 2010eko datuen arabera, kanabisaren kontsumoa ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Probatzeko kontsumoa, bizitzan zehar uneraren batean egin dena, igo egin da 1992tik: urte hartan, %21,9k kontsumitu zuen halakorik; iaz, berriz, biztanleen erdiak baino gehiagok. Kontsumoaren proportzioan, bere horretan dirau generoen arteko aldeak: emakumeen %27k adierazi zuen probatzeko kontsumitu zuela, eta gizonen %41ek.



3.2.4 SEDENTARISMOA


Batez besteko denbora parte-hartzaile bakoitzeko




Sedentarismoak pertsonen osasunari eragiten dio. Emakume sedentarioen ehunekoa gizonena baino 8 puntu handiagoa da. 2008. urtean, txangoak eta paseak egiten dituzten gizonek emakumeek baino 28 minutu gehiago ematen zituzten, batez beste, horretan egunean. Datuak ez dira askorik aldatu 1993tik. 2008an, gizon kirolariek kirolean ematen zuten denbora ordu bete eta 40 minutukoa zen, emakumeek baino 20 minutu gehiago. Iturria: Zifrak 2011

3.2.5 HBE-HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETENDURAK

HBE Tasa



IVES por grupos de edad




Estadistikek agerian jarri dute borondatez etendako haurdunaldiak gora egin dutela pixkana-pixkana, 1995. urtetik. EAEn, zehazki, HBE kopuruari dagokionez, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren tasa ia hirukoiztu da azken urteetan: 2,6tik (1995ean) 7,03ra (2009an). Dena dela, autonomia-erkidegoen artean, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren tasa txikiak dituzten erkidegoetako bat da, HBE tasa: 7,26 puntu. Adin-taldearen arabera, adierazlerik altuena (12,64) 20 urtetik 24ra bitarteko emakumeena da. 2009. urtean, haurdunaldia nahita eteteko emandako arrazoi nagusia (kasuen %92,3) zen haurdunaren osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan zegoela.

3.3. KUTURA ETAKIROL BALIABIDEAK


3.3.1 KIROLA EGITEA

Egiten den kirol modalitatea



Emakumeek kirola egiteko duten arrazoi nagusiak hauek dira: lirain egotea (emakumeen %36) eta ongi pasatzea (%26). Gizonen artean, arrazoi nagusia ongi pasatzea da (%50), eta lirain egotea bigarren mailan dago (%17). Emakumeen artean, hauek dira kirol mota nagusiak: gimnasia, aerobik, fitness eta yoga, eta ondoren, ibiltzea. Gizonen artean, gehien egiten den kirola futbola da, eta haren atzetik, ibiltzea.

federatutako pertsonak modalitatearen arabera (>3000 pertsona)



Euskadin, kirolean federatutako pertsonen %10 soilik dira emakumeak. Lau kirolean soilik dago parekotasuna: hockeyan, neguko kirolean, hipikan eta boleibolean. Kirol bat oso femenizatua dago, gimnasia; gainerakoak, berriz, maskulinizatuak. 14 kirolean, emakumeen federazio-fitxak ez dira iristen %10era ere. Horien artean, hauek nabarmentzen dira komunikabideetan duten ohiartzuna dela eta: txirrindularitza (261 emakume federatu eta 6.935 gizon federatu) eta euskal pilota (151 emakume federatu eta 2.557 gizon federatu)




4. PARTE HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

4.1 PARTE HARTZEA ERAKUNDEETAN


4.2 PARTE HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

4.1 PARTE HARTZEA ERAKUNDEETAN


4.1.1 EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSAERA



Eusko Legebiltzarrean emakumeen presentzia % 44koa da legealdi honetan; aurreko legealdian, %45,33 zen, eta VIII.ean, aldiz, %53,3. PSE-EE, Popularrak eta EH Bildu taldeek soilik betetzen dute parekotasun-printzipioa, eta azken talde hori da gizon baino emakume gehiago dituen legebiltzarreko talde bakarra. Aipatu behar da UPD alderdiak ez duela emakumezko ordezkariarik legebiltzarrean. Legebiltzarrean ordezkari gehien dituen alderdiak, EAJ-PNVk, ez du ordezkarietza orekatua emakume eta gizonen artean. Aipagarria da, era berean, Eusko Legebiltzarreko burua emakumezkoa dela, aurreko bi legengentzialdietan bezala.



4.1.2 BATZAR NAGUSIEN OSAERA



Gizonen eta emakumeen parekotasun-printzipioa hiru foru erakundeetan betetzen den arren, emakumezko batzarkideen kopurua batean ere ez da gizonezko batzarkideena baino handiagoa. Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan emakumezko bana da buru, baina ez Arabakoetan. Erakunde horietako botere betearazlea gizonen esku dago oraindik: hiru ahaldunak gizonak dira.

4.1.3 EAEKO UDALAK



Mugetatik hurbil egon arren, EAEko udaletako zinegotzigoen osakerak parekotasun-printzipioa betetzen du. Ez da gauza bera gertatzen alkatetzetan; izan ere, desoreka handia baitago gizonen alde, alkateen % 77,06 gizonezkoak baitira. Azken hauteskundeetan, zerrenda guztien osakerak parekotasun zuzena zuen: ordezkariaren %40. Hala ere, emakume gehienak leku zailetan zeuden, "leku ziurak" izenekoetatik urrun.

Alkate emakumea duten udalerri gehienak txikiak dira. EAEn, 56 alkate emakumeak dira, eta horietako 31, berriz, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udaletan dabitza. EAEko hiriburu batek ez du inoiz emakumezko alkaterik izan, eta 2011ko azken hauteskundeetan ondoren ere ez dauka. EUSTATEN azken eroldaren arabera 10 udalerri handienetako batek ere ez du emakumezko alkaterik. Alkate horien alderdi politikoari dagokionez, aipatzekoa da Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE) eta alderdi Popularrak (PP) ez dutela emakumezko alkaterik EAEn. Aitzitik, emakumezko alkateen %65,5 (35 guztira) Bildukoak dira, eta EAJk 16 alkate emakume ditu (guztizko kopuruaren %28,57). Emakumezko gainerako alkateak -5 guztira- talde independenteetakoak dira.



4.1.4 GOI KARGUAK EUSKO JAURLARITZAN

	Sailburuak		Sailburuordeak/idazkari nagusiak		Zuzendaritzak/idazk		Behin behineko langileak	
	M	H	M	H	M	H	M	H
Lehendakaritza		1	2	2	8	10	6	2
Administrazio publikoa eta Justizia		1	1	3	4	8	3	3
Garapen Ekonomikoa eta Lehiakortasunaren Agentzia	1		2	2	4	9	1	4
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila		1	1	2	3	6	1	4
Ogasuna eta Finantzak		1		3	4	6	1	4
Hezkuntza, Hizkuntza eta Politika eta kultura Saila	1		3	2	7	13		3
Seguridad	1		1	2	4	6	3	1
Osasuna		1		1	5	2	2	1
Ingurumena eta Lurralde Politika	1		1	2	4	2	1	3
Guztira	4	5	11	19	43	62	19	26
%	44,44	55,5	36,63	63,33	40,95	59,04	42,22	57,77

Oro har, esan dezakegu Eusko Jaurlaritzako gaur egungo goi-karguen osaera orekatua dela maila guztietan, sailburuordetzetan izan ezik, horietan ez baita parekotasun-printzipioa betetzen: 19 sailburuorde gizonezkoak dira, eta 11, berriz, emakumezkoak.

Sailei dagokionez, Eusko Jaurlaritza osatzen duten sailburuetatik, 4 emakumeak dira gehi 4 gizon gehi lehendakaria. Sailburuordetzatan, ordea, gizonezkoen gainerrepresentazioa dago: %63,33. Sailka, Ogasun eta Finantzetan, sailburu zein sailburuorde guztiak gizonezkoak dira; gauza bera gertatzen da Justizia eta Administrazio Publikoan, %75 gizonezkoak dira. Maila horretan emakume kopuru handiena duen sail bakarra Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta kultura Saila da. Eredu horretako sailburua emakumezkoa da, eta sailburuordeen %60 ere bai.

Zuzendaritzei dagokionez, esan daiteke ezen, egun, emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatuaren printzipioa betetzen dela, gizonezko zuzendari gehiago egon arren: %59,04 gizonezkoak dira eta 40,95 emakumezkoak. Zuzendaritzetan emakume gehiago duen sail bakarra Ingurumena eta Lurralde Politika da: emakumezkoak %70 dira. Ez dute betetzen parte-hartze orekatuaren printzipioa Administrazio Publikoa eta Justiziak, Garapen Ekonomiko eta lehiakortasunaren agentziak, Enplegu eta Gizarte Gaietakoak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura Sailak.



Aipamen berezia egin behar zaie aldi baterako pertsonalari: sailetako emakumezko eta gizonezko idazkariak eta emakumezko zein gizonezko aholkulariak. Horiek zenbatzean, parte-hartze orekatuaren printzipioa betetzen bada ere, azterketa zehatzago batek ondorioztatzen du gizonezko/ zein emakumezkoen kontseilarien idazkaritzak guztiz feminizatuak daudela, eta aholkularienak, maskulinizatuak. Hainbat sailtan aholkularien %100 gizonak dira (Ogasun eta finantzak, Garapen Ekonomiko eta lehiakortasunaren Agentzia, Enplegu eta Gizarte gaiak, eta Ingurumena eta Lurralde Politika).

Oro har, buka dezakegu esanez ezen historikoki maskulinizatuak egon diren eremuak -adibidez Ogasuna eta Finantza, garapen Ekonomiko eta lehiakortasunaren agentzia- isla zuzena dutela Eusko Jaurlaritzako osaeran, horietan gizon gehiago baitaude. Gauza bera gertatzen da feminizatuak dauden sailekin, Hezkuntza edo Osasunarekin: horietan emakume gehiago dago.



Oro har, esan dezakegu, Eusko Jaurlaritzako gaur egungo goi-karguen osaera orekatua dela bere maila guztietan, sailburuordetzetan izan ezik, horietan ez baita parekotasun printzipioa betetzen: 19 sailburuorde gizonezkoak dira, eta 11, berriz emakumezkoak.



4.2 PARTE HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

4.2.1 IBEXeko ENPRESEN ETA FINANTZA ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAKEAEko Erakunde finantzieroetako
administrazio kontseilu eta
Zuzendritza orokorraErakunde Finantzieroetako
zuzendariak

Euskadiko bost finantza-erakunde nagusien presidenteak gizonezkoak dira; horretaz gain, erabaki gune garrantzitsuetan, batz besterik, soilik bost partaidetako bat da emakumea. Emakumezko errepresentazio handiena duena ere ez da iristen bere erabaki organo gorenetan %31 emakume izatera.

Administrazio kontseilua/Ibexeko
Zuzendaritza orokorraIBEX enpresetako
Lehendakaritza

IBEX 35 osatzen duten euskal enpresei dagokienez, egoera oso antzekoa da. Burtsa-indize horretan kotizatzen duten hiru enpresa horietatik, batek berak ez du emakumezko lehendakariarik, eta emakumezkoen batez bestekoa %20,6 da euren administrazio-kontseiluetan edota zuzendaritza


4.2.2 BESTELAKOAK

Euskadin gehiengoa duten sindikatuetan, soilik bakar batek du emakumezko idazkari orokorra, eta haren batzorde eragilean emakumezko gehiago ditu gizonezkoak baino. Gainontzeko sindikatuak gizona dute idazkari orokor modura, eta haien batzorde eragilean, emakumeen tasa ez da %37ra iristen.




Sindikatueta batzorde eragilea

Emakumeak Gizonak




Komunikabideetan emakumeek duten erabaki ahalmena aztertzerakoan, emaitzek adierazten dute oso eszenatoki maskulinizatuaren aurrean aurkitzen garela. Soilik emakume batek zuzentzen du irradia; pisua duten telebista kate garrantzitsuenek ere gizonetakoak dituzte, salbu EITBko zuzendaria, oraintsu izendatu berria; Emakume zuzendaria duen egunkari bakarrak zabalkunderik txikiena du aztertutakoaren artean.

Komunikabideetako Zuzendaritza karguak




Organo Judizialak



Organo Judizialetan, 5 karguetatik 3 emakumeek betetzen dituzte. Hala ere, karrera judizialean aurrera goazen heinean emakumezkoen presentzia txikiagoa da. Hala, Epategietan, emakume epaileen kopurua gizonetakoena baino bi aldiz gehiago da. Probintzia auzitegiaren, emakumezko magistratuen kopurua gizonetako magistratuen kopuru bera da, baita lehendakariaren kopurua ere. Eta, aitzitik, Justizia auzitegi Nagusian gizonetako magistratuen kopurua, emakumezkoena hirukoiztu egiten da, tribunaleko lehendakari eta saletakoak tarteko.

Enpresa eta elkarte profesionalak


Emakumeak Gizonak



108 kolegiatuetatik soilik %14,81 dira emakumeak. Aipamen berezia egingo diogu Bizkaiko kasuari; izan ere, kopuru osoaren %10,41 bakarrik dira emakumezkoak. Aipatutako gidan elkarriketatu diren 19 enpresa-erakundeeetatik, 16tan (%84,21) gizonetakoak dira buru; aldiz, EAE guztian soilik 3 emakume agertzen dira erakunde horien buru. Gainera, merkataritza-ganberak, Bilboko Burtsa eta azokak ere aztertu dira, eta horietan guztietan gizonak daude burutik: 10 guztira. Emakumeek eremu honetan duten presentzia erabat deuseza da.

Kirol organoak


Emakumeak Gizonak




Kirol organoetan dauden gizonen ehunekoa (%80) emakumeena (%20) baino handiagoa da. 4 organo edo batzordeetan, gizonak dira nagusi, eta, gainera, horietako batean (Kirolaren Euskal Kontseiluan) ez dira betetzen legez ezarritako ordezkariak orekatuaren ehunekoa; aitzitik, beste bitan ehunekoa parekotasunerako joera dute. EAEko kirol-federazioen presidenteen %96 gizonetakoak dira.

Euskal herriko Unibertsitateko
errektoretzak

■ Emakumeak ■ Gizonak

Euskal Herriko Unibertsitateko
Zuzendaritza batzordea eta Sail orokorrak

■ Emakumeak ■ Gizonak




Gizonezkoak dira zuzendariak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetan (Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea). Emakumeek zuzendaritza-kontseiluetan duten ordezkartza paritarioa da Deustuko Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean herena da, eta %33 da Mondragon Unibertsitatean.

5. ERANTZUNKIDETASUNEZKO GIZARTE-ANTOLAKUNTZA

5.1.DENBORAREN ERABILERA

Denboraren erabilera (ordu/minutu)




Azken 15 urteotan, biztanleriak bizitza sozialari eskainitako batez besteko denbora nabarmen murriztu da. Bidenabar, generoen arteko hesia txikitu egin da jarduera horri dagokionez: 12 minututik 5 minutura murriztu da. Hala ere, aisialdi aktiboa desglosatzen du. Aisialdi pasiboa aztertzerakoan, ikusten da gizonezkoek, batez beste, emakumezkoek baino egunean 20 minutu gehiago eskaintzen diotela irakurketa, telebista edota irratia.

Gizonezko eta emakumezkoek espazioak erabiltzeko moduak agerian uzten du, batez beste, emakumezkoek etxean bi ordu gehiago ematen dituztela gizonak baino; gizonek, berriz, ordu bate gehiago ematen dute ikasten edo lanean. Halaber, gizonezkoek ordu erdi gehiago ematen dute etxetik kanpo eta establezimenduetan.


Emakumeek, batez beste, gizonek baino bi ordu gehiago ematen dute etxeko lanetan; gizonek, ordea, emakumezkoek baino ordu bate gehiago ematen dute lan emankorrean edo prestatzen; gainera, denbora gehiago ateratzen dute aisialdirako. Gizonezko eta emakumezkoen denbora, horrenbestez, oso modu ezberdinean banatzen da. Egun, genero arteko hesirik handiena lan-jarduera nagusiaren inguruan gertatzen da: gizonezkoek emakumezkoek baino ordu bate eta 15 minutu gehiago eskaintzen diote. Oso adierazgarria da denboraren erabilera hori modu ezberdinean egitea; izan ere, lan-jarduera horrek du balio sozialik handiena; gainera, zubirik garrantzitsuen da eskubide sozialetara iristeko.

Etxeko lanei eskainitako denbora



5.2. ZAINTZARAKO ZERBITZUAK

Etxeko zainketan erabilitako denbora




Aipatzekoa da eguneroko jardueretan batzuek eta besteek ematen duten denboraren arteko aldea, esaterako, bazkaria prestatzen (56 minutu), garbitasuna egiten (39) eta arropa (20minutu). Jarduera bakarrean ematen dute gizon euskaldunek emakume euskaldunek baino denbora gehiago: kudeaketa-lanetan (minutu 1); dena den, egunean, horretan ematen dute denborarik gutxien, esporadikoki egiten den jarduera baita. Emakumeek ez dute jarduera horietan denbora gutxiago ematen gizonak ekintza hauetan parte hartzen hasiak direlako, baizik eta gizarte-ohiturak aldatu direlako edota aldaketa teknologikoak iritsi direlako. Generikoki, egunero, okupatutako emakumeek etxeko lanetan ematen duten denborak bikoiztu egiten du gizon okupatuek horretan ematen dutena. Lan emankor hauetatik, emakumeek denbora gehien ematen dute seme-alaba txikiak zaintzen: egunero, batez beste, 4,7 ordu; gizonak, aldiz, 2,8.

Azken 15 urteotan, emakumeek ez dute murriztu seme-alabak zaintzeko ematen duten murriztu, baizik eta 8 minutura luzatu dute (gizonezkoek 7 minutu). Gauza bera gertatzen da edadeko pertsonen zaintzarekin: horretan, 1993an baino 4 minutu gehiago ematen dute; gizonak, aldiz, 2 minutu gehiago)



6. INDARKERIA

Genero indarketiagatik emakumeen biktimizazio garapena,
indarkeria motaren arabera



2011n, genero-biolentziaren 3.829 biktimen 4.858 biktimizazio erregistratu ziren, hau da, aurreko urtean baino gehiago, 4.285 jaso baitziren. Bikoteak edo bikote ohiak eragindako biolentziaren ondorio dira biktimizazio gehienak.


2011n, emakumeen %12,5ek onartzen du biolentzia matxistaren biktima izan dela noizbait, eta %2k dio inkesta bete bitartean jasaten ari dela. Emakumeen %7,5 onartzen du bikoteak edo bikote ohiak eragindako biolentzia jasan duela, eta %1k dio jasaten ari dela une horretan bertan. Emakumeen %1,8k onartzen du biolentzia matxista kasuren bat jasan duela lanean, eta 0,2k onartzen du jasaten ari dela kontsulta burutzen ari den bitartean.

Bestalde, 2011n, emakumeen % 18 inguruk dio ezen, maiz edo batzuetan jasan duela biolentzia deduzidu edo tekniko moduan azaltzen den egoeretakoren bat azken urtean; hamarretik hiruk, berriz, dio epe horretan jasan duela. sufrido alguna vez durante dicho periodo. Eremu bakoitzeko analisi zehatzetik ondorioztatzen da, bestalde, biolentzia deduzidu edo tekniko portzentaje handiagoak daudela aitortutakoarenak baino. Eraitzen arabera, bost emakumetik batek gizartean jasan duela biolentzia noizbait. % 8,5etik % 6,1era, bikotearen, bikote ohiaren edo familia barruko genero-biolentzia jasaten behin, gutxienez. Emakumezkoen populazio okupatuari dagokionez, % 7k nolabaiteko maiztasunaz jasaten du azken urtean, lanean; %20, berriz, azaltzen du gutxienez behin jasan




Biktimaren adina

■ Ezezaguna ■ 18 urte baino gutxiago
■ 18tik30era ■ 31tik-40ra
■ 41tik50era ■ 51tik-60ra



Erasotzaileen adina


■ Ezezaguna ■ 18 baino gutxiago
■ 18-30 ■ 31-40
■ 41-50 ■ 51-60
■ 60 baino gehiago



Biktimen adin-tarterik handiena 31-40 urte dituzten emakumeen artekoa da. Emakumeen %28,6k 18-30 urte bitartean zituzten salatu zutenean. Zenbat eta urte gehiago, portzentaia txikitu egiten da, hala nola 18 urte baino gutxiago dituzten adintxikikoen artean. Erasotzaileei dagokienez, portzentaia altuena (%32,1) 31 eta 40 urte bitartekoa da. Erasotzaileen %56,4 adin tarte horretakoa da. Bitmen kasuan, antzera: 18 eta 40 urte bitartekoa artekoa da erasotzaile gehien biltzen duen adin-tartea.

Euren bikotekideek edo bikote ohiek indarkeriaz eraildako emakumeen garapena.

— Emakume Biktimak



Emakumeak jasan duten biolentziaren ondorioz, 2002 eta 2011 artean, 29 emakume hil zituzten genero-biolentzia dela-eta Euskadin (2, azken urtean). Biktimen batez besteko adina 45 urtekoa zen. Hidako biktima gehien 2004an erregistratu ziren, eraildako 4 emakume; era berean, 2008an, 2006an eta 2005ean, eraildako 3 emakume. Emakumeen % 76k nazionalitate espainiarra zuen, eta %65 hiltzailearekin bizi zen: kasuen % 76an, bikoteak edo bikote ohiak erailak. 2011n, Euskadin 1,8 puntukoa da eraildako emakumeen kopurua. Gauza bera gertatzen da 2010 eta 2009an.

3.- ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO ORDEZKARITZARI BURUZKO AZTERKETA

Txosten hau egiteko, beharrezkotzat jo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen osaera aztertzea da, jakiteko zein neurritan den berdinzalea erakundea bera eta nortzuk diren arduradunak erantzukizunak eta erabakiak hartzeko maila ezberdinetan. Gauzak horrela, EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratupeko langileen sexuaren arabera banaketa aztertu da kapitulu honetan.



Azterketa honek, bestalde, aukera ematen du genero-eraginari buruzko txostenaren egiturari beharrezkoa den edukietako bat betetzeko, hau da: emakume eta gizonen partaidetza araua egiteko prozesuan. Horri dagokionez, aipatu behar da ezen, atal honetan aipatutako taldeak alde batera utzita, ez dela ikusi beste talderik parte hartu duenik arau hau egiten.

Aztertu diren taldeak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen banaketa, sexuaren arabera.
- Unibertsitateaz kanpoko irakasleen banaketa, sexuaren arabera
- Osasun-erakundeetako langileen banaketa, sexuaren arabera
- Segurtasun-kidegoen banaketa, sexuaren arabera Ertzaintza
- Justizia Administrazioako langileen banaketa, sexuaren arabera

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANGILEEN ETA GOI KARGUDUNEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

1.2 Administrazio Orokorreko kontseilaritza, sail eta erakunde autonomoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

FUNTZIONARIOAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	A1		A2		C1.		C2.		E		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Karrerako funtzionarioak	510	410	192	180	217	337	263	1144	308	145	1490	2216
Bitarteko funtzionarioak	299	560	68	82	96	237	70	295	77	75	610	1249
GUZTIRA	809	970	260	262	313	574	333	1439	385	220	2100	3465



LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	Goi-mailako tituluduna		Erdi-mailako tituluduna		Bestelako tituluak		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	115	121	45	63	221	236	381	420
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	43	146	14	42	120	169	177	357
Behin-behinekoak	5	11	0	1	3	7	8	19
GUZTIRA	163	278	59	106	344	412	566	796

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

Ehunekoetan, Euskadiko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileen % 61,52 emakumeak dira, eta % 38,48, gizonak; horrek esan nahi du administrazioa gero eta feminizatuagoa dagoela.

Administrazioko goi-mailetan (A1 eta A2), emakume baino gizon gehiagok lan egiten du, baina alde hori murriztu egin da azken urteotan. Bestalde, orokorrean, emakumeen lan-arloko ezegonkortasuna administrazioan gizonena baino nabarmen handiago da: lan-arloko ezegonkortasuna duten administrazioko langileen ia % 70 emakumezkoak dira (bitarteko funtzionarioak, eta aldi baterako eta behin-behineko kontratupekoak). Nabarmentzekoa da C2 taldean gero eta emakume gehiago daudela, emakumeen gehiegizko ordezkartza % 81,20ra iristen baita.



2- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASLEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

2.1 Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera: Haur-hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Helduen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia

Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera.					
Ematen dituzten mailak	Emakumeak		Gizonak		Guztira
	Abs	%	Abs	%	Abs
GUZTIRA	26.617	72,89	9.899	27,11	36.516
Haur-ekuntza - Lehen Hezkuntza	15.717	85,50	2.666	14,50	18.383
Bigarren Hezkuntza	9.356	59,14	6.463	40,86	15.819
Helduen Hezkuntza	505	69,85	218	30,15	723
Irakaslanik gabea	1.039	65,30	512	34,70	1.591

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2011-2012.

Feminizazio handia dago unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan, batez ere Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Batez ere, emakumezkoek lan egiten dute alor horretan, irakaskuntza pribatuan zein irakaskuntza publikoan. Guztira, 36.516 pertsona dabilta irakasle-lanetan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, eta % 72,89 emakumezkoak dira. Emakumeen presentzia bereziki nabarmena da irakaskuntza-mota bitan: Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian.

Gauzak horrela, aipatzekoa da Haur eta Lehen Hezkuntzako eremua: bertan, irakasleen % 14,50 baino ez dira gizonezkoak; ondorioz, ikasleek ia ez dute erreferentzia maskulinorik irakaskuntzaren maila horietan.

Lanbide Heziketan, irakasle gehienak gizonezkoak izateak eragina du bai ikasleengan, baita irakasleengan ere. Unibertsitate aurreko irakaskuntza osoan, arlo horretan bakarrik da gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa, ehuneko oso adierazgarriekin; izan ere, joera alderantzikatzen da.

Erabaki-guneetarako sarbideari dagokionez, emakumeen presentzia oso handia denez sektorean, errazagoa da emakumeak ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetan egotea, eta datuek diote banaketa orekatua dela. Hezkuntza Sailak datozen 4 urteetarako ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetarako egin dituen izendapenei buruzko azken datuen arabera (2009ko uztailekoak), 2009an egin ziren 174 izendapenetatik 83 (% 47,7) emakumezkoak dira, eta 91 (% 52,3), gizonezkoak.



3- OSASUN-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

3.1 Osasun-erakundeetako osasun-langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

Osasun-erakundeetako funtzionarioak eta estatutupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011

	A1		A2		C1.		C2.		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	2.208	2.272	519	5.350	67	642	111	2.730	2.805	8.994
Estatutupeko aldi baterako langilea	310	569	69	946	9	78	11	338	399	1.931
GUZTIRA	2.518	2.841	588	6.296	76	720	122	3.068	3.204	10.925

Osasun-erakundeetako lan-kontratupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011

	Goi-mailako titulazioa		Erdi-mailako titulazioa		Bestelako titulatuak		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	200	93	60	816	70	658	330	1567
Aldi baterako lan- kontratupeko langileak	1	2	0	4	0	4	1	10
GUZTIRA	201	95	60	820	70	661	331	1577

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

EAEko osasun-langileen sexuaren arabera banaketa ez dago orekatuta, langileen % 77,86 emakumezkoak baitira. Emakumeek maila guztietan dute ordezkariak gehiago, A1 mailako kolektiboan izan ezik; izan ere, maila horretan parekotasun-printzipioa betetzen da. Emakumeek ordezkariak handiagoa daukate, neurri handi batean, A2 taldeko partaidetza ez delako orekatua. A2 taldean, erizaintzan diplomatutako langileak daude batez ere, eta horrek azaltzen du zergatik dagoen lanbidea feminizatuta lan-merkatu horretan. C2 maila ere aipatu behar da. Prestakuntza-mailarik txikiena eskatzen da bertara sartzeko; ondorioz, ordainsari-maila apalagoa du. Bertako langileen % 96 emakumezkoak dira; beraz, argi dago segregazio bertikal izugarria dagoela.

3.2 Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, taldearen eta sexuaren arabera. Kudeaketa eta zerbitzupeko langileak.



Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, funtzionarioak eta estatutupeko langileak. 2011

	A1		A2		C1.		C2.		E		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	126	133	34	84	162	243	455	1464	810	721	1.587	2645
Estatutupeko aldi baterako langilea	45	48	12	18	28	46	64	244	93	282	242	638
GUZTIRA	171	181	46	102	190	289	519	1708	903	1.003	1.829	3.283

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, lan-kontratupeko langileak. 2011

	Goi-mailako titulazioa		Erdi-mailako titulazioa		Bestelako tituluak		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	14	12	16	26	244	423	274	461
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak					1	1		2
GUZTIRA	14	12	16	27	244	424	274	463

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarila

Langile ez-sanitarioei dagokienez, generoen arteko desoreka osasun-langileena baino txikiagoa den arren, emakumeen ordezkartza guztizkoaren % 64,22koa da. Ordezkaritza gehiago dute, batez ere, C2 taldeko ordezkartza orekatua ez delako, bertan % 76,70 baitira emakumezkoak.



4 ERTZAINITZA.

4.1 Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera

Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera										
ESKALAK	A		B		C		D		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Goi-mailako eskala										
Eskala exekutiboa			127	5					127	5
Inspektoreordetza-eskala					395	41			395	41
Oinarrizko eskala							6.552	820	6.552	827
GUZTIRA			127	5	395	41	6.552	820	7074	866

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarila

Ertzaintzan, emakumeak plantillaren % 10,90 dira: 866 emakume daude 7.940 ertzainetako taldean.

Ehuneko hain txiki horrek azalpen historikoa du: lehenengo sustapenean, emakumeek debekatuta zeukaten Ertzaintzan sartzea, eta hurrengo sustapenetan, berriz, ezarri zen emakumeen kupoa% 15koa izango zela, gehienez ere. Sustapen horiek jendetsuenak izan ziren, horietan sartu baitziren langilerik gehienak; gainera, emakumeak garai hartan zuen egoera kontuan hartuta, ulergarria da gaur egungo ehunekoa hain txikia izatea.

Emakumeak kategoria eta eskaletan duen banaketa Oinarrizko eskalan (agenteak) pilotzen da, % 11,12koa baita. Gaur egun, soilik 5 emakume daude eskala exekutiboan; beraz, emakumeen ordezkari % 3,9koa da. 2012. urtean, eskala horretan, 4 emakume sartu ziren; sartutako gizonak, berriz, 26 izan ziren.

5 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

**5.1. Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera.**

Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

FUNTZIONARIOAK	Titularra / jabea		Bitartekoa		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E
Auzitegiko medikua	15	24	6	7	21	31
Prozesu- eta administrazio-kudeaketa	113	597	53	292	166	889
Prozesu- eta administrazio-izapidetzea	134	372	33	174	167	546
Laguntza judiziala	142	163	30	114	172	277
GUZTIRA	404	1156	122	587	526	1743

Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

LAN KONTRATUPEKOAK	Goi-mailako titulazioa		Erdi-mailako titulazioa		Bestelako tituluak		GUZTIRA	
	H	M	H	M	H	M	H	M
Lan-kontratupeko langile finkoak	3	6	3	5	14	35	20	46
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	6	16	2	18	9	25	17	59
GUZTIRA	9	22	5	23	23	60	37	105

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

2013ko urtarrilean, Justizia Administrazioako funtzionarioak eta lan-kontratupeko langileak 2411 ziren, guztira; horietatik, % 76,64 emakumeak dira; beraz, Justiziako langileetan, emakumeak dira nagusi.

Prozesu- eta administrazio-kudeaketan, desoreka handia dago sexuaren arabeko ordezkaritzan, % 76,57 emakumeak baitira.



PRESTAKUNTZA.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, herri-administrazioak behartuta daude neurriak hartzera langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra emateko. Horretarako, prestakuntza-planak egin eta gauzatu behar dituzte beren zerbitzuetako langileentzat eta sentsibilizazio-jarduerak egin behar dituzte erantzukizun politikoa dutenentzat.

Egun, Ogasun eta Finantza Sailak baino ez dauka berdintasunerako plana edo antzekoa, edo noiz onartuko zain daude. Gainerako sailek, berriz, jarduera puntualak antolatzen dituzte, edota IVAPeko prestakuntza-eskaintza aprobetxatzen dute. Osasun Sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baino ez dituzte jaso prestakuntzako gastuak; azken sail horrek, bestalde, irakasleentzat baino ez ditu jaso.

Berdintasunerako prestakuntzari dagokionez, taula honek jasotzen du sailek zer prestakuntza eman duten:

Prestakuntza, sailka (2012)	emakumeak	gizonak	Zenbatekoa
Lehendakaritza			0
Herri Administrazio eta Justizia Saila	49	12	8758
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	2		386
Enplegua eta Gizarte Gaiak	1		170
Ogasun eta Finantza Saila	1		155
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	10	2	2040
Segurtasun Saila	1	1	310
Osasuna	3		510
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	12		1415
guztira	79	15	13.744 €

Herri Administrazio eta Justizia Sailak Justiziako langileei emandako prestakuntza alde batera utzita (37 emakume eta 7 gizon), gainerako sailek 6.066 euro zuzendu dute, guztira, berdintasunerako prestatzeko. Ikastaroak egin dituzten lagunetatik, % 84 emakumeak dira.

4.- GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA.



Atal honetan jasotzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera edota diskriminazio-egoera zehatzak indargabetzera edo berariazko arazoak arintzera bideratutako helburuak dituzten aurrekontu-programa guztien azterketa. Halaber, helburu horiek lortzeko egin beharreko ekintzen kostu ekonomikoa laburbiltzen saiatu gara. Horretarako, aurrekontu-memoriak aztertu ditugu; finean, memoria horiek dira aurrekontuen dokumentu-oinarria, eta, politika publikoak ezartzean dokumentu horietan azaltzen dira sail guztien helburuak. Bakarrik jaso ditugu gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatu eta egon litezkeen desberdintasunak kendu edo murrizteko ekintzak biltzen dituzten programak, baita ekintza horiek lortzeko erabiltzen den aurrekontu-partida ere.

Aurreko urteetan hausnartu eta ikasitakoaren ondorioz, ekitaldi honetan, beste irizpide batzuk finkatu dira ekintzak sailkatzeko. Hori dela eta, batetik, erabaki da ez dela kontuan hartuko gobernatzean berdintasunaren alde jarritako neurririk, baldin eta berariazko aurrekontu-sailik ez badute; izan ere, horiek berdintasun-teknikarien egitekoak dira, eta 2. taldean azaltzen dira. Bestetik, prestakuntzari buruzko azterketa bat egiten da 3. atalean, Administrazioako langileei buruzkoa baita.

Oro har, ez da jaso berdintasuna sustatzeko jarduerarik, baldin eta jarduerak barne-baliabiderekkin egiten badira, hau da, Administrazioako edo haren erakunde autonomoetako langileek egiten badituzte.

Azkenik, aurreko urteetan ez bezala, erabaki da azterketan ez sartzea ondoren azaltzen diren laukietako jarduera-kopuruak; izan ere, ulertzen da horiek zenbatzea ez dela garrantzitsua, zeren ez dute azaltzen jardueraren beraren inportantzia. Horrez gain, sailen artean desadostasunak daude ekintzak edo esku-hartzeak eurak definitzeko.

4.1 1. TALDEA Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.



1. TALDEA: Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.

Saila	Ekintza kop. 2013	Ekintza kop. 2014	Kreditua 2013	Kreditua 2014
Lehendakaritza (Emakunde)	1	1	6.073.000 €	5.233.997 €
1. TALDEA, GUZTIRA	1	1	6.073.000 €	5.233.997 €

Aurten ere, 250.000 euro gutxiago ditu Emakundeko aurrekontuak; beraz, aurreko ekitaldikoaren aldean, % 4,11 murriztu da. Murrizketa horri iazkoa gehituz gero (% 13,39), ondoriozta dezakegu Emakundeko aurrekontuak 1.188.625 euroko murrizketa izan dutela azken bi urteotan, hau da, % 16,95 murriztu direla. Dena den, gogoratu behar da azken kopuru horretan sartzen dela Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza izan zenaren aurrekontua. Dagoeneko, ez dago Zuzendaritza hori, eta haren funtzio gehienak Emakundek bereganatu ditu, nahiz eta beste sail batzuk ere bereganatu dituzten funtzio batzuk. Izan ere, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 1.568.618 euroko aurrekontua jaso du genero-biolentziako biktimei zerbitzuak emateko.

Lehendakaritzako aurrekontua aurreko ekitaldikoa baino % 7,17 handiagoa da: 102.553.918 euro, guztira. Emakunderi esleitutako aurrekontua, berriz, sail osoaren aurrekontuaren % 5,1a da.

4.2 2. TALDEA. Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

2. TALDEA: Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.		
Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014
Lehendakaritza	106.320,51	107.140,24
Herri Administrazio eta Justizia Saila	55.000	55.000



Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	57.429,38	57.429,38
Enplegua eta Gizarte Gaiak	55.188,00	52.979,26 ²
Ogasun eta Finantza Saila	53.396,00	53.396
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	110.310,42	110.310,42
Segurtasun Saila		
Osasuna	59.000,00	54.000
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	105.870,73	56.631,68 ³
2. TALDEA, GUZTIRA	602.515,04	546.886,98

Eusko Jaurlaritzako sail guztiek daukate berdintasun-atal bat, salbu Herrizaingoak, sortzeko prozesuan dabil eta. Berdintasun-teknikari bi dauzkan sail bakarra Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila da. Sailez gain, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziak eta LANBIDE erakunde autonomoak ere berdintasun-unitatea edo horren baliokidea daukate. Berdintasun-unitateak arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuan xedatutako organismo autonomo edo erakunde publikoetan, bestalde, ez da berdintasun-unitaterik sortu.

Berdintasuneko administrazio-unitateek de 546.886,98 aurrekontua dute: iaz baino 56.000 euro gutxiago, gutxi gorabehera. Alde hori azaltzen da zeren, txosten hau egitean, oraindik ez da Lanbiderenen aurrekontua jaso, sortu berria baita.

Berdintasun-teknikariek soldata hori daukate, funtzioak betetzearen. Ekitaldi honetan, Lehendakariak eta Osasun Sailak aurrekontu-sail bat izendatu dute unitaterako: 5000na euro.

4.3 2. TALDEA. Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

3. TALDEA: Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014
Lehendakariak	123.636,80	5.000
Herri Administrazio eta Justizia Saila	1.640.000	1.111.210

² Egun, Lanbidek berdintasun-teknikaria hartu du erakundean; dena dela, txosten hau egitean, ez dakigun zer aurrekontu-sail duen horretarako.

³ 2013ko ekitaldian, X. Legegintzaldia eratzean egindako aldaketak egin eta gero, berdintasun-teknikari bi zituen Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak. Gaur egun, sailak berrantolatu eta gero, pertsona bakarra dauka.



Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	0	340.000
Enplegua eta Gizarte Gaiak	0	1.568.618
Ogasun eta Finantza Saila	0	0
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	33.638,73	369.054,43
Segurtasun Saila	149,540	74.770
Osasuna	10.000	15.000
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	0	423.000
3. TALDEA, GUZTIRA	1.903.604,23€	3.906.652€

Talde honetan, guztira, 3.906.652 euro daude; hau da, aurreko ekitaldian baino 2.003.048 euro gehiago. Alde hori dago zeren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bere egin ditu genero-biolentziaren biktimak artatzeko eskumenetako batzuk, eta 1.568.618 euro zuzendu dituelako horretarako.

Nabarmendu behar da Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak lehenengo aldiz jaso dituztela aurrekontuak talde honetan.

Adierazi behar da, hala ere, badirela talde horretako beste jarduerak batzuk, ezin izan direnak aurrekontuetan jaso, ez balioetsi.

4.4 4. TALDEA. Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.

4. TALDEA: Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.

Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014
Lehendakaritza	146.778,62	146.778,62
Herri Administrazio eta Justizia Saila	80.000	266.126,5
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	20.328	0



Enplegua eta Gizarte Gaiak	709.285	17.495.786 ⁴
Ogasun eta Finantza Saila	0	0
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	60.134,48	88.850,71
Segurtasun Saila		0
Osasuna	2.166.074,04	309.460,05
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	111.000	470.000
4. TALDEA, GUZTIRA	3.273.274,14	18.777.101,88

Guztira, 18.777.101,88 euro dira: aurreko ekitaldian baino 15.503.827 euro gehiago. Alde hori dago zeren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak kontziliazio-jardueren gaineko irizpidea aldatu zuen. Orain arte, ez ziren jasotzen "Lan- eta familia-bizitza uztartzeko eta adingabeak zaintzeko langileentzako laguntzak.

Osasun Sailak, berriz, ekitaldi honetan ez du jasotzen cérvix minbiziaren kontrako bakunazioa, ulertzen delako, esku-hartze hori gorabehera, nekez hobetuko dela emakumeen premiei eman behar zaien arreta sanitarioa.

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

AURREKOTUAK EUROTAN, SAILKA	2014	%	Aldea 2014/2013	2013	%	2012	Aldea 2013/2012
Lehendakaritza	102.553.918	1,12%	7,17%	95.688.000	1,10%	151.020.000	-36,6
Herri Administrazio eta Justizia Saila	220.173.634	2,40%	3,39%	212.953.000	2,46%	231.249.000	-7,9
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	410.819.817	4,48%	3,66%	396.312.000	4,57%	531.381.000	-25,4
Enplegua eta Gizarte Gaiak	989.120.210	10,80%	24,25%	796.024.000	9,19%	1.074.010.000	-25,9
Ogasun eta Finantza Saila	97.706.225	1,06%	5,17%	92.898.000	1,07%	105.980.000	-12,3
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.727.866.330	29,78%	3,7%	2.630.443.000	30,35%	2.925.028.000	-10,1
Segurtasun Saila	607.918.522	6,63%	4,3%	582.849.000	6,73%	653.934.000	-10,9
Osasuna	3.351.641.359	36,60%	2,7%	3.263.193.000	37,65%	3.406.549.000	-4,2
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	651.755.254	7,11%	9,69%	594.157.000	6,86%	739.566.000	-19,7
Guztira	9.159.555.269	100%		8.666.530.000	100%	9.820.729.000	

⁴ Kopuru horretatik, 16.811.910 euro adingabeak zaintzeko kontziliazio-neurrietarako dira. Berdintasunerako VI. Planean azaltzen denez, "lan- eta familia-bizitza uztartzeko eta adingabeak zaintzeko langileentzat" hartutako neurriaren eraginari buruz hausnartu behar da, kontziliazioaren eragin gaiztoa saihestu, eta kontziliazio arduratsua sustatzeko.



Euskal Autonomia Erkidegoan erabaki berri den itun fiskalaren ondorioz, diru gehiago bilduko da; ondorioz, sailetarako aurrekontuetan jasotako gastuak areagotuko dira. 2014an zehar, sailek gastu gehiago izango dituzte, eta kasu batzuetan, aurreko ekitaldian baino % 25 gehiago; esaterako, Enplegu eta Politika Publikoetako Sailak. Lehendakaritzak eta Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak ere aurreko ekitaldian baino % 10 gehiago dute gastuetarako.

BERDINTASUNERAKO AURREKONTUA SAILAREN AURREKONTUARI DAGOKIONEZ

Saila	Saileko aurrekontua	BERDINTASUNA 1,2,3,4 taldeak	Sailaren aurrekontuare n gaineko %-a
Lehendakaritzak	102.553.918	5.492.909	5,35%
Herri Administrazio eta Justizia Saila	220.173.634	1.432.336	0,65%
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	410.819.817	397.429	0,09%
Enplegua eta Gizarte Gaiak	989.120.210	19.117.383	1,93%
Ogasun eta Finantza Saila	97.706.225	53.396	0,05%
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.727.866.330	568.215	0,02%
Segurtasun Saila	607.918.522	74.770	0,01%
Osasuna	3.351.641.359	378.460	0,01%
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	651.755.254	949.631	0,14%
4. TALDEA, GUZTIRA	9.159.555.269	28.464.529	0,31%

Aurrekontu guztiaren % 0,31 berdintasunerako da: aurreko urtean baino % 0,18 gehiago. Kopuru hori % 0,24 murrizten da Emakundeko aurrekontua kanpoan utziz gero, eta % 0,06ra, arestian aipatu den kontziliazio-neurria kontuan hartuz gero. Horrek esan nahi du ezen 2014an, or ohar, 2013an baino baliabide gutxiago zuzenduko direla berdintasunera; beti ere, kontuan hartuta sail bakoitzak zenbatetsi eta azaldu dituzten kredituak. Hala ere, kontuan izan behar da taula horretan azaltzen ez diren beste aurrekontu-sail batzuk egon daitezkeela. Aurreko urteko aurrekontuen aldean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak baino ez dute aurrekontua handitu.

5.- DIRU-SARRERAREN AZTERKETA.

EAEko zerga- eta finantza-errealitatea aztertzea ezinbestekoa da aurrekontua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko eraginak aztertzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-sistemaren ezaugarri nagusia da zerga-sistema osatzen duten zerga gehienak biltzeko gaitasuna duela. Foru-ogasunek kudeatu eta biltzen dituzte zerga-sistema osatzen duten zerga guztiak, Ekonomia Itunaren araudian emandako banaketari jarraituz, hau da, Autonomia Fiskala izenekoari jarraituz. Horrek esan



nahi du Euskal Autonomia Erkidegoak zerga-sistemako oinarritzko zerga guztiak kudeatu, bildu eta diseinatzen dituela, murrizketa harmonizatuari lotuta. Horrela bada, lurralde historikoek nolabaiteko gaitasuna dute zergak arautzeko, baita zergok kudeatu eta biltzeko autonomia ere.

Hala ere, Eusko Legebiltzarrari dagokio zerga-arloko koordinazio, harmonizazio eta lankidetzari buruzko arauak onestea.

Araudien ikuspegitik, zuzeneko zergei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak berezko zerga hauek ditu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Oinordetzen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Zeharkako zergei dagokienez, zerga handi bien (Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak) harmonizazio-maila ia erabatekoa da, zerga horien izaeratik eratorrita, Europar Batasun osoan ere harmonizatuta daudela. Gauzak horrela, foru-ogasunen eskumenak zergaren kudeaketaren alderdi zehatzen ingurukoak baino ez dira. Aldiz, bilketarako gaitasuna kontuan hartuta zeharkako zergen arteko hirugarrena (Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga) modu autonomoan arau dezakete, neurri handi batean, EAEko erakundeek.

GENEROAREN ERAGINA ZERGETAN

Itxuraz neutroak izan arren, zerga guztiek dute generoen arteko desorekaren bat, esplizituki edo inplizituki agertzen dena, duten izaerarekin bat etorrira (Stotsky, 2005).

Generoaren araberako desoreka esplizitua erraz identifikatzeko modukoa da, normalean idatziz jasota egoten baita zerga-kodean edo -araudietan. Generoaren araberako desoreka inplizitua honela adierazten da: zerga-sistemak gizonen eta emakumeen ongizatean eragiten duen moduan. Generoaren araberako desoreka inplizitua identifikatzea zailagoa izaten da; izan ere, horretarako, zerga-sistemak emakumeei eta gizonei nola eragiten dien aztertu behar baita.

Bereizketa esplizitua nabariago azaltzen da pertsona fisikoen gaineko zuzeneko zergetan. Desoreka inplizitu nabariena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da.



Zeharkako zergei dagokienez, ez dute generoen arteko desoreka espliziturik izaten, ondasun edo zerbitzuak eskuratzean edo ondasun eta eskubideak eskualdatzean sortzen delako zerga. Hala ere, badaude zerga horien desoreka azaltzen duten adibideak, hain zuzen ere emakumeek bakarrik eskuratutako produktuei ezartzen zaienean zerga, eta ez gizonak eta emakumeek bereizi gabe eskuratutako beste antzeko produktu batzuei.

Zuzeneko zergen eragina. PFEZ

PFEZ da geure zerga-sisteman genero-eragina nabariaren azaltzen duen zerga, emakumeek eta gizonak zerga-aldian jasotzen dituzten errentei ezartzen dizkielako zergak. Generoen arteko desoreka inplizitu nabariena PFEZen familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da (baterako tributazioaren kasuan). Eraitza da diru-sarrerak jasotzen dituen ezkontide bakarra duten senar-emazteei laguntzen zaiela, zerga-arintzearen bitartez. Zerga-arintze hori handiagoa izango da emaztearen lan-errenta txikiagoa eta senarraren lan-errenta handiagoa den heinean. Hala ere, banakako zergapetzeetan ere egon daiteke generoen arteko desoreka, zergak abantailaren bat ematen badio ezkontideren bati bere egoera zibilaren ondorioz.

Familia-mota ezberdinei salbuetsitako gutxienekoak asimetrikoki aplikatzearen ondorioetako bat da PFEZak ez dituela modu homogeneoan zergapetzen familia guztiak, tratu mesedegarriagoak ematen baitizkie guraso biko familiei guraso bakarreko familiei baino — gehienetan (% 85 baino gehiagotan) emakumeak dira guraso bakarrak—, fiskalitate txikiagoa baitute.

PFEZek eragin ezberdina du soldatapeko gizonetako eta emakumetako langileengan, lan-merkatuan gizonak eta emakumeak duten banaketa ez delako simetrikoa, batez ere gizarte- eta ekonomia-egoera ezberdinak dituztelako eta familia barruko zaintza-lana ezberdin banatuta dagoelako.

Europako Batzordeak azken urteetan adierazi du bere lehentasunezko helburuetako bat "gizarte- eta zerga-eskubideak indibidualizatzea" dela, gizonak eta emakumeak subjektu independente gisa jardun ahal izateko lana bilatu eta lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko orduan, eta, horrela, sexuagatiko diskriminazio-tratua saihesteko. Gure zerga-sistema oztopoa da tratu-berdintasun hori lortzeko, eta herrialde kideei zerga-sistemak erreformatzeko eskatu zaie, banakako zerga pertsonalak ezartzearen mesedetan.

Zeharkako zergen eragina.

BEZa estatu-mailako zerga da, eta estatuari dagozkio horri buruzko arauak ezartzeko eskumenak. Hala ere, genero-ikuspegitik ere azter daiteke, batez ere zergapeko egitate



salbuetsiek, % 10eko tasa murriztuek eta % 4ko tasa oso murriztuek eragiten dituzten zerga-gastuen bitartez.

Beste alde batetik, BEZa ez da oso zerga gehikorra, zuzenean kontsumoari lotuta baitago. Familietako aurrekontuan oinarritzko produktuen kontsumoak pisu erlatibo txikiagoa du errenta-mailetan gora egin ahala. Horrenbestez, kontsumoaren gaineko tributazioak eragin handiago du baliabide gutxiko pertsonengan eta aurrekontu gehiena familiako kontsumorako erabiltzen duten pertsonengan (horixe da emakumeen kasua). Gutxikorrak dira, tasa berbera aplikatzen baitzaie produktu bera kontsumitzen duten pertsona guztiei, pertsonen arteko errenta-ezberdintasunak kontuan hartu gabe.

ZERGEN GENERO-ERAGINA EAEko AURREKONTUETAN

Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako **Euskal Ogasunari buruzko Urteko Txosten Bateratua 2010** txostenari jarraiki, PFEZ zergan baterako tributazioa egitearen ondoriozko zerga-gastua (hau da, diru-bilketan dagoen galera) 190,852 milioi eurokoa da.

Kasu gehienetan, baterako tributazioak zera esan nahi du: gizon bat etxetik kanpo lan egiten ez duen emaztearekin ezkondata dagoela eta emaztearen "gutxieneko pertsonala" senarraren zerga-oinarrian aplikatuta, zenbateko aldakor bat desgrabatzen duela; senarraren errenta-maila zenbat eta handiagoa izan, zenbateko aldakor hori orduan eta handiagoa izan da. Adibidez, 2003ko datuen arabera, 7.500 euro irabazten dituen gizon batek 20 euro desgrabatzen ditu emazteak diru-sarrerarik ez duelako; aldiz, 66.000 euro irabazten dituen beste batek 1.530 euro desgrabatzen ditu kontzeptu berberarengatik.

Zer gizarte-onura dakar partida horrek? Esan gabe doa etxeko lana aintzatetsi egin behar dela. Baina hona hemen arazoa: nork ordaindu behar du lan hori? Eta, horretaz gain, nork egin behar du? Nork ordaindu behar duen galderari dagokionez, 66.000 euro irabazten dituen senarra duelako, bidezkoa al da emazteak desgrabatzen dituen 1.530 euro horiek aurrekontuaren kargura eta, beraz, zergapekoaren kargura egotea? Kontuan hartu behar da gizon horrek, bere emaztearen lanarengatik inolako soldatarik ez ordaintzeaz gain zergarik ez duela ordaintzen eta Gizarte Segurantzaz ere ez duela kotizatzen. Gainera, emakume horrek diru-sarrerarik ez izateagatik senarrak desgrabatu ahal izateak emakumeari eragiten dizkion ondorioak ere kontuan hartzekoak dira. Itxuraz, emaztea ere onuradun dela pentsa daiteke, familia osoarentzako desgrabazioa delako, baina emazteari oso garesti ateratzen zaio bere



bizitzan zehar: lehenik, mendekotasun ekonomikoaren katearekin lotuta geratzen delako. Bigarrenik, senarra falta denean, pobrezian geratuko delako.

Emakumeak, etxetik kanpo lanera joan eta bere soldata irabazten duenean, senar-emazteek batera edo bereizita ordain ditzakete zergak. Bakoitzak bere aldetik ordaintzen badu, senarrak ezin izango du emaztearen gutxieneko pertsonala kendu, emazteak berak kendu beharko baitu bere soldatatik. Emaztearen soldata txikiagoa izan ohi denez, desgrabazio hori ere txikiagoa izango da, edo deuseza agian. Zerga batera ordaintzen badute, ez da horrelakorik gertatuko, baina emazteak ezin izango du PFEZean dagoen beste desgrabazio batez baliatu: 'lan-errendimenduengatik desgrabazioaz', alegia. Izan ere, azken desgrabazio horrek errenten muga bat baitu eta, baterako deklarazioaren kasuan, bien soldatak hartzen baitira kontuan. Mekanismo konplexu horien ondorioz, ezkondata dagoen emakume bat, gutxieneko soldata batekin, % 48 ordaintzera ere iritsi daiteke PFEZaren eta Gizarte Segurantzako kotizazioen artean. 'ezkontzagatiko penalizazioa' izena eman zio horri. (Maria Pazos, *Sesgo de género en el impuesto sobre la renta*)

Baterako tributazioagatiko desgrabazioa, beraz, faktore negatiboa da, emazteak ekonomikoki senarren mendeko izaten jarraitzeko lagungarri baita. Emakume horiek ez dute kotizaziorik metatzen, ez eta lan-esperientziarik ere. Baterako tributazioan gastua ekitatiboa ez denez, hainbatek uste du horri eutsi egingo zaiola, ekonomiarentzat errentagarria delako hein batean. Baina hori ez da hala, ezta hurrik eman ere. Aitzitik, zerbitzu publikoetan aurrezten dela kontuan izanik ere, emakumeak etxeko lanetan espezializatzea ez da ez eraginkorra ez produktiboa gaur egungo gizartean. Demagun emakume batek, prestakuntza-maila handia duen emakume batek, bizi osoko lanbide-errendimendua sakrifikatzen duela seme edo alaba bat, bi edo gehienez hiru zaintzeko, bere benetako erabilgarritasuneko hamar urte inguruko aldian. Zerbitzu publiko gehiago izanez gero eta gizonak etxeko lanetan gehiago inplikatu balira, emakume horrek lanpostu kalifikatu bat izan zezakeen eta herrialdearen giza kapitala modu eraginkorragoan baliatzen lagunduko luke. (Maria Pazos)

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak badaki zerga guztiek generoen arteko desorekak dituztela eta, beraz, garrantzitsua dela generoaren ikuspegitik aztertzea. Hala ere, desoreka horren jakinaren gainean egon arren, sexuaren arabera bereizitako estatistika eta adierazlerik ez dagoenez, ezinezkoa da EAEko fiskalitatearen eta EAEren 2013. urterako aurrekontuetan zehaztutako diru-sarreraren inguruko azterketa sakona egitea. Uste dugu hurrengo ekitaldietan gai horri heldu beharko zaiola, aurrekontuak genero-ikuspegitik egiteko helburua izango duen proiektu baten barruan.



Hala ere, Eustat pertsona fisikoen errentari buruzko estatistika egiten hasi da, eta horrek aukera emango du hurrengo ekitaldietan zerga-egitateen aitortzearen egon litezkeen asimetriak argitara emateko, esaterako honako alderdi hauetan: errentak eskuratzea, murrizketa eta kenketak aplikatzea, hobariak, lanaren errentaren banaketa zergadunaren sexuaren arabera, etab.

Gainera, komeniko litzateke adierazle eta azterlanak egitea Administrazioaren bilketan lan-errenten eta enpresa-, lanbide- eta kapital-errenten bilketaren ehunekoa zein den jakiteko, bai eta bilketa horiek zertarako erabiltzen diren ere. Horrela, aberastasunaren banaketa bidezkoa den ala ez ikusi ahal izango litzateke.

BEZari dagokionez, zergapeko egitate salbuetsiek, % 10eko tasa murriztuek eta % 4ko tasa oso murriztuek eragiten dituzten zerga-gastuak aztertzeko aukera emango duten adierazleak egin beharko dira.

6.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau dio 19. artikuluan: "**Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzea:** Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".



Hau da, arauak eraginpean hartuko duen eremuan emakumeen eta gizonen gizarte-egoera zein den badakigularik —sexuren arabera izan daitezkeen desberdintasunak identifikatzearren—, proiektatu den jarduerak ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen aztertu behar da, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko arautu edo esku hartu nahi den gizarte-testuinguruan. Kasu honetan, gizarte-testuinguruan EAEko herritar guztiak sartzen dira eta jarduera-eremua multisektoriala da, hau da, eremu guztiak biltzen ditu: hezkuntza, kultura, ekonomia, osasuna eta abar.

Gobernu osoaren jarduerak edo, bestela esateko, politika publikoek desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko izaten duten eraginaren berri izan nahi badugu, i) alde batetik, programa guzti-guztiak aztertu beharko genituzke dela programa horien onuradunen ikuspegitik begiratuta, dela programak zuzenduta egoten diren berariazko taldeen (gizon/emakumeak, neska/mutilak, berdintasuna sustatzea eta abar) ikuspegitik begiratuta, (ii) eta, bestetik, politika publiko (programa) horiek guztiek gizartean izan duten benetako eraginaren berri izan beharko genuke.

Alabaina, ez da erraza izaten gizartean aldaketak eragitea helburu duten politika publikoek (berdintasun-politikek, esaterako) gizartean zer-nolako eragina izaten duten jakitea, horretarako denbora behar izaten baita, gizarte-aldaketak epe luzekoak izaten direlako. Horrekin loturik, 2012an Emakundek "Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna" izeneko azterlana sustatu du eta, aztertu dituen adierazle estrategikoen bitartez, gure gizartea sakontasunez beha daiteke eta Berdintasun Planean eta Legean ezarritako helburuak betetzen ari ote diren jakin dezakegu. Zehazki, berdintasun-politiken hartzaile diren kolektiboen egoera zertan aldatu den jakin daiteke, eta gizartean, oro har, emakumeen eta gizonen egoera zein den; bai eta zer eremutan lortzen ari diren aurrerapen azkarrenak eta non dauden eragozpen handienak.

Gure gizartean izandako benetako eraginaren berri izatea ahalbidetuko diguten adierazle horiek garatu eta ezarri bitartean, eta abiapuntutzat hartuta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak egiturazko eta kultura-arloko desberdintasun baten ondorio direla, eta politika publikoen bitartez esku hartu behar dela berdintasunaren alde egiteko eta desberdintasun horiek murrizteko edo kentzeko, Ogasun eta Finantza Sailean uste dugu berdintasun-politiketara soilik bideratzen diren gastuen azterketa labur bat egin behar dela. Baina, lehen esan dugunez, politika horien benetako eragina ezin da neurtu eta, halaber, ezin ditugu alde batera utzi berdintasunaren alde bideratzen diren baliabideak.

**BERDINTASUNA LORTZERA BIDERATUTAKO EKINTZA ADIERAZGARRIENAK****- PRESTAKUNTZA, SENTSIBILIZAZIOA ETA INFORMAZIOA**

Sail bakoitzean berdintasunaren arloko koordinazioa izateaz gain, honako hauek:

- Irakasleen prestakuntza, Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa Lantzeko Plan Estrategikoa garatzeko.
- Gazteria. "Gazte-sexualitatea" eta "Sexismoaren prebentzioa gizarte-sareetan" ikastaroak.
- Gazteria: "Berdintasunean oinarritutako heziketa", "sexu-heziketa" eta "genero-indarkeriari" buruzko gidaliburuak egin eta zabaltzea.
- Osakidetzako profesionalentzako prestakuntza, genero-indarkeriari buruzko jardunaldia.

- EGITURAK EDO ZERBITZUAK SORTZEA

- Berritzegune Nagusian Eskola Inklusiboaren (aniztasuna eta generoa) arduradunaren plaza sortzea.

- ESTATISTIKAK ETA AZTERKETAK EGITEA

- Itsapreben. Arrantzaren sektorean emakumea erabat integratzeko proiektua egitea.

PLAN ETA PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

- Hezkuntza-sisteman berdintasunerako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plan estrategiko bat bultzatzea.
- Kirolean berdintasuna lortzeko plan bat bultzatzea.

- BERDINTASUNA EDUKI EDO IRIZPIDE MODUAN TXERTATZEA HAUTAKETA-PROZESUETAN, DIRU-LAGUNTZETAN, HITZARMEN EDO PRESTAKUNTZA-JARDUERETAN ETAB. (ONARTZEKO, BALIOESTEKO EDO EGIKARITZEKO)

- Turismo Zuzendaritza. Helmuga turistikoetan eta enpresetan kalitateko eta ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzeko laguntzak. Titulartasunen edo



zuzendaritza-postuen % 40 gutxienez emakumezkoek betetzen dituztenean, diru-laguntzaren zenbatekoa handitzea.

- Familia-kargak dituzten emakumeentzako enplegua sortzera bideratutako laguntzak.
- Diru-laguntzak ematea seme-alabak edo mendekotasuna duten ahaideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzen duten langileen ordezkioak kontratatzeko. Lanbide
- Laneratzeko enpresen kontratazioa. Lanbide. Gizartean baztertuta geratzeko arriskua duten emakumeek laneratzeko enpresetan lan egiteko kontratazioak sustatzea.
- Ekonomia-enpresetan kolektibo jakin batzuk (indarkeriaren biktimak eta guraso bakarreko amak) bazkide gisa hartzeko laguntza. Enplegua eta Gizarte Gaiak
- Genero-indarkeriaren biktimak unibertsitateko ikasketak egiteko prezio publikoak ordaintzetik salbuestea. Unibertsitate Zuzendaritza

- ERANTZUKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA

- 3 urtez azpiko adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.
- Bateragarritasun erantzukidearen 2014ko programa.
- Mendekotasuna duten ahaideak zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murrizketak.
- Langileei lana eta familia bateragarri egiteko aukera ematea, adingabeak zaintzeko.

- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEA.

- Emakumeentzako Kontxako bandera babestea.
- Emakumezkoen traineru-taldeei Euskotren ligarako diru-laguntza ematea.

AHALDUNTZEA:

- Landa Eremuko Emakumeen Eguna ospatzea.
- Emakumezko etorkin eta ijitoei zuzenduta dauden ahalduntze asoziatiboko ekimenak bultzatzea.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK

- Genero-indarkeriaren arloan arriskua ebaluatu eta baloratzeko erabiltzen diren teknikak aplikatu eta hobetzeari buruzko ikerketa-proiektu bat egitea. Ertzaintza.



- Hitzarmena Legelarien Euskal Kontseiluarekin. Etxeko indarkeria eta/edo sexu erasoen arloko jarduerak.
- Tratu txarrak ematen dituztenak berrezteko programa, genero-indarkeriaren delituetan gizartearentzako lanak egin ditzaten.
- Gizarte Zerbitzuak. Genero-indarkeriaren biktimei zerbitzuak ematea. Telefono bidezko zerbitzua, diru-laguntzak, aholkularitza, etab.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza zuzenean esleitzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laneratzen laguntzea. Lanbide.

GENEROAREN EBALUAZIOA ⁵	ARABERAKO	ERAGINAREN	AURRETIAZKO
---------------------------------------	-----------	------------	-------------

6.- Aurreikusten al da emakumeek eta gizonek etorkizuneko arauaren edo administrazio-egintzaren ondoriozko onuretan edo emaitzetan izango duten presentzia lagungarria izango dela sektorean desberdintasunak gutxitzeko?

Emakumeek eta gizonek proiektuan duten presentzia bat dator EAEko herritarren banaketarekin (% 51 emakumeak eta % 49 gizonak), eta sektorean eremu guztiak biltzen dira: Hezkuntza, Osasuna, Kultura eta abar. Hala ere, EAEko emakumeen eta gizonen egoerari erreparatuta, emakumeak oraindik ere gizonekiko desberdintasun-egoeran daude eremu guztietan. Ez da aurreikusten araua aplikatzearen ondoriozko onuren bitartez epe laburrean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatuko direnik. Izan ere, EAEko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko 2014ko datuetan argi eta garbi ikusten da oraindik ere 2013. urtean izandako arrailen antzekoak edo okerragoak

⁵ Abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpena betez bete da atal hau.



daudela. Politika publikoetan, oro har, eta berdintasun-politiketan dagoen austeritateak ez du lagunduko sektorean, hau da, euskal gizartean desberdintasunak gutxitzen.

7.-Aurreikusten al da etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak desberdintasunak desagerrarazi edo, behintzat, gutxitu egingo dituela baliabideak eskuratzeari dagokionez?

Diagnostikoan ikusi dugunez, EAEko emakumeen eta gizonen egoerari erreparatuta, emakumeak oraindik ere gizonekiko desberdintasun-egoeran daude eremu guztietan: gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko eskubide, baliabide eta onuren sarbidean, kontrolean eta baliatzean, erabakiak hartzeko eremuetan, lan-eremuan, etxeko eta zaintzako lanetan, denboraren erabileran, indarkerian eta abarren.

Txosten honen 2. atalaren arabera, lan-kolokatasunak eragin handiagoa du emakumeengan gizonengan baino eta bi sexuen arteko soldata-aldea nabarmena baino nabarmenagoa da. Erosteke ahalmenari dagokionez, oso handia da generoen arteko desoreka, eta horrek esan nahi du pobrezia eragin handiagoa duela emakumeengan. Gaur egun, pobrezia-arriskuan dauden pertsona guztiak kontuan hartuta, % 82,9 emakumezkoak dira. Lanbidetik eta Enplegu Saitetik adierazi dute gehienetan emakumezkoak kolpatzen dituen pobrezia hori prebenitzera eta arintzera bideratutako jarduerak egingo dituztela eta pobrezia feminizazioa arintzeko ekintzak gauzatuko dituztela (badirudi hori guztia oso lotuta dagoela guraso bakarreko egoerekin). Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren aurrekontuak % 24,5 igo dira lehengo urtearekin alderatuta eta Lanbidek hainbat jarduera dauzka egiteko aurreikusita. Pentsa daiteke, beraz, horrek guztiak eragin positiboa izango lukeela emakumeen pobrezia eta gizarte-bazterkeria arintzeko. Hala ere, zuhur ibili beharra dago, prentsan azaldutako oharren arabera larrialdietarako laguntzek murrizketa handiak izan baititzakete.

Hezkuntza-eremuko datuak aztertuz gero, hezkuntzan erronkak aldatu egin direla konturatuko gara. Izan ere, hezkuntzarako sarbidean ez dago desberdintasunik baina ikasketak eta lanbideak hautatzeari dagokionez, eremu horretan bereizketa nabarmena da, eta horrek esan nahi du hezkuntza-sisteman sexismoa eta genero-estereotipoak errepikatzen ari garela, neskakilak eta mutikoak modu desberdinean gizarteratzen dituzten mekanismoen bitartez. Hezkuntza Sailak Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriaren prebentziorako eta berdintasunerako plan estrategikoa ezarrita, besteak beste helburu hau lortu nahi da: ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapenik gabe. Hortaz, pentsatzekoa da plan hori ezartzeak lagundu egingo duela aukera akademikoa eta, beraz, profesionala egiteko garaian gaur egun dagoen bereizketa desagerrarazten.

Lan-errentaren ondoriozko diru-sarrerei dagokienez, gizonen diru-sarrerak emakumeen diru-sarreren bikoitza baino gehiagokoak dira, eta emakumeen errenta nabarmen txikiagoa da gizonena baino (11.000 euro gutxiagokoa). Egia da lana duten emakumeen tasa txikiagoa dela eta emakumeen artean gehiago direla lan partzialak dituztenak, baina generoaren araberako aldea gehiegizkoa da lan-



errentan. Lan-errentaren ondoriozko diru-sarrerei dagokienez, gizonen diru-sarrerak emakumeen diru-sarreraren bikoitza baino gehiagokoak dira. Hori horrela, 2006an (argitaratutako azken datua urte horretakoa da), gizonetako zuzendari gerente baten laneko batez besteko urteko errenta 65.739 euro zen eta emakume gerente batena, ordea, 42.376 euro. Arau honetan ez da aurkitu generoaren soldata-arraila txikitzea ahalbidetzen duen arau espezifikorik. Esate baterako, ez dago soldata berbera jasotzeko eskubidea urratzen denean zigorren kontrola egiteko edo soldaten gardentasuna hobetzeko neurri espezifikorik. Enpresaren arloan erabakiak hartzeko lanpostuak —hobeto ordainduta dauden lanpostuak, beraz— emakumeek eskuratu ahal izateko neurriak ere ez da aurkitu.

Enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familia-bizitzaren beharretara egokitzeko eta zerbitzu komunitarioak, prestazio ekonomikoak eta zerga-neurriak sortzeko eta egokitzeko neurriak ere ez da aipatzen.

Osasun-baliabideei dagokienez, gauza jakina da emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino 6 urte handiagoa dela gutxienez, baina hala ere bizitzaren azken urteetan emakumeen bizi-kalitateak okerrera egiten duela eta desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena zertxobait txikiagoa dela emakumeen kasuan. Zentzu horretan, ez da aurkitu desberdintasun hori ezabatzerik edo gutxitzerik bideratutako esku-hartze edo programa espezifikorik.

8.- Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izatea edo, behintzat, ordezkartza hori esparruan duten presentziaren maila berekoa izatea?

EZ. Txosten honen 3. atalean EAEko administrazioko langileen ordezkartza aztertzen da, eta bertan ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzan ez dagoela ordezkartza orekaturik goi-kargudunei dagokienez. Talde horrek garrantzi handia duenez aurrekontuak egiteko erabakiak hartzen, esan liteke eragin negatiboa dagoela araua egin eta gauzatzeko prozesuan emakumeek eta gizonen dute partaidetza dagokionez. Gainera, administrazioko gainerako langileak kontuan hartuz gero, zenbaki absolutuetan gizon baino emakume gehiago egon arren, gizonen ordezkartza emakumeena baino handiagoa da goi-mailetan, hau da, zerbitzu-buruen eta arloetako arduradunen artean, eta horiek ere zuzenean hartzen dute parte araua egiteko orduan. Gauzak horrela, araua eta aurrekontu-programetan ez da aurreikusi goi-mailako lanpostuetan (batez ere buruak eta arduradunak) emakume gehiago edo emakumeen ordezkartza handiagoa egoteko aukera, eta horrek eragin negatiboa esan nahi du.

9.- Aurreikusten al da etorkizuneko arauan edo administrazio-egintzan proposatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumei eta gizonen egokitzen zaizkien gizarte-arauak eta balioak gaitzetzeko edo aldatzeko?

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoan ikusi dugunez, desberdintasuna ez da gauza isolatua; gizarte patriarkaletako kulturaren arloko eta egiturazko desberdintasuna da, eta lanaren



sexu-banaketan oinarritzen diren gizarte-paperak eta rolak definitzen dituzten kultura-ereduen bitartez betikotzen dugu.

Eredu horien arabera definitzen ditugu gure rolak, eta horrek eragina du gure prestakuntza-hautuan eta hezkuntzaren eta lanbidearen arloko bereizketan. Hezkuntza Sailak Hezkuntza-sisteman berdintasunerako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plan estrategikoa ezarri, hauxe lortu nahi da, besteak beste: pertsonaren garapen integralean oinarritzen den eta sexuaren araberako estereotipo eta rolak alde batera uzten dituen hezkidetzazko eskola-eredu bat bermatzea. Aurreikuspenen arabera, plan horrek gizarte-arau eta -balio jakin batzuk gainditu edo aldatzen lagunduko die ikasleei, eta horren isla gisa, bereizketarik egin gabe aukeratuko dituzte gero ikasketak eta lanbideak.

Bateragarritasun sozialeko neurriei dagokionez, oraindik ere batez ere emakumeak dira lanaldi-murrizketak eskatzen dituztenak, eskatutako murrizketen % 6,28 bakarrik baitira gizonenak. Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzien kasuan, halakoak eskatzen dituzten gizonen kopurua ez da % 3ra iristen. Dagoeneko badaude ikerketa eta azterlan batzuk esaten dutenak bateragarritasun-neurri ez-erantzukideek ondorio kaltegarriak ekartzen dizkiotela berdintasunari; bateragarritasunaren ondorio maltzurra eragiten omen dute, sexuaren araberako lan-banaketa sorrarazi eta elikatzen dutelako. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 16.811.910 euro erabiliko ditu langileek, adingabeak zaindu ahal izateko, lana eta familia bateragarri egin ditzaten. Hala ere, 62.000 euro besterik ez ditu bideratuko bateragarritasun erantzukidera, eta horrek adierazten du arauak ez duela lagunduko gizarte-arau edo -balioak zentzu horretan gainditu eta aldatzen.

10.- Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea?

7.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK. AURREKONTUAK, GENERO- IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK

Jaso al da arau edo administrazio-egintzarako proiektuaren testuan neurriren bat...

Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta haien deskribapena



...genero-ikuspuntua kontuan hartzea sustatzeko? Bai	emakumeen eta gizonen egoera desberdina hobeto ezagututa	
	emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio edo helburu gisa, edo adierazpen nahiz azalpen moduan jasota	<u>Arau teknikoak:</u> "Gobernuak aurrekontu-politiketan generoarekin loturiko ikuspuntuarekiko konpromisoa hartu duela adierazten saiatuko beharko da aurrekontu-dokumentazioan." "Aurrekontu-politikek generoaren ikuspegitik daukaten eraginari buruzko informazioa sartzeko ahalegina egingo da. horretarako, ahal den neurrian, formulatu beharreko adierazleak formulatuko dira." "3. TALDE FUNTZIONALA: SEGURTASUNA, BABESA ETA GIZARTE-SUSTAPENA Beharrik handiena duten giza taldeak babestuz (hirugarren adinekoak, langabeak, gazteak, emakumeak, minusbaliatuak eta giza talde baztertuak) errentaren banaketa hobetzerantz bideratutako jarduerak sartzen dira talde honetan" <u>Zuzentarau ekonomikoak:</u> "Ikasleen aukera-berdintasuna eta garapen integrala bermatzea da hezkuntza-politikaren helburua" "Hezkuntzaren esparruan, genero-indarkeriaren prebentziorako planean parte hartuko da"
	hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginda edo sustatuta	Bai, oro har. Testu osoan
	genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatuta	
	berdintasuna eduki edo irizpide gisa hartuta (sartzeko, baloratzeko edo zeregina betetzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan.	
...emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko? EZ	bestela; zehaztu: _____	
	hautatzeko epaimahaietan	
	sariak banatzeko epaimahaietan	
	konsulta-organoetan	
	zuzendaritza-organoetan	
... ekintza positibokoa? EZ	beste batzuetan; zehatu: _____	
	emakumeentzat	
	gizonek berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzeko	
... itxuraz neutroa dena, baina aurreikusteko moduko genero-eragin positiboa izan dezakeena? EZ	beste batzuetarako; zehatu: _____	
	indarkeriaren biktimentzat	
	guraso bakarreko familientzat	
	mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat	
... diskriminazio asko jasaten dituzten emakumeen EZ	adinagatik	
	gizarte-mailagatik	



desberdintasunak gutxitzeko? EZ	sexu-aukeragatik	
	desgaitasunagatik	
	etnia eta/edo arrazagatik	
	nazio-jatorriagatik	
... debekuzkoa edo zehapenezkoa? EZ	sexua dela-eta diskriminatzeagatik	
	hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik	
	beste arrazoiren batengatik; zehatu:	

Ekonomia eta Ogasun Sailean uste dugu arau honek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gutxitzea eta/edo desagertzea eta berdintasuna sustatzea lortzera bideratutako neurrietako bat Aurrekontuei buruzko Legea bera hobetzea dela; gure ustez, arauaren etapa guztietan (azterketan, lantzean eta egikaritzean) genero-ikuspegia txertatzea izango litzateke hobekuntza hori. Izan ere, baliabideen birbanaketa orekatua lortzeko funtsezko tresna izaki, aurrekontuak zeharkako tresnen artean zeharkakoentzat ere hartzen dira, administrazioan mainstreaming-a txertatzeari dagokionez.

Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari AGI esaten zaio (aurrekontuak, genero-ikuspegia kontuan hartuta), eta administrazio publikoaren diru-sarreraren eta gastuen politikek emakumeengan eta gizonengan izaten dituzten ondorioak agerian uzten ditu. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duen aurrekontu batean, emakumeek eta gizonen baliabide publikoen banaketan dituzten premiak, egoerak, baldintzak, eskubideak eta betebeharrak txertatzen dira. Ondorengo lerroetan, AGIen azterketa zehatzago bat egiten da.

AGI-AURREKONTUAK, GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA

Generoarekiko sentiberak diren aurrekontuak tresna estrategikoa dira. Agerian jartzen dituzte erakunde publikoen gastu eta diru-sarreraren politikek emakumeengan eta gizonengan dituzten ondorioak, partiden banaketek batzuen eta besteen aukera ekonomiko eta sozialei nola eragiten dieten aztertuta. Horrek esan nahi du, alde batetik, aurrekontuko diru-izendapenek emakumeen eta gizonen aukera sozio-ekonomikoetan (arloan politiko guztietan) dituzten eraginak aztertu behar direla; eta bestetik, genero-berdintasuna lortzeko bidean aurrera egitea eragozten duten diru-sarreraren eta gastuen partidak berregituratu behar direla.

Aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzea berdintasun-politikek aurrera egiteko lehentasunezko gaia da nazioartean. Izan ere, 2001. urtean, Europar Batasunaren esparruan,



aurrekontu-prozesuko maila guztietan generoaren analisisa sartzeko agindeia egin zitzaien Europako gobernu guztiei eta, gaur egun, estatu kideen erdia baino gehiago hasi dira metodologia hori maila ezberdinetan aplikatzen. 2010. urtean, 5 urteko atzerako kontaketa hasi zen 2015. urterako eta Europar Batasunaren hainbat administrazio-mailatan genero-aurrekontuak sartzeko. ELGAk, UNIFEMek eta Kontseilu Nordikoak Bruselan antolatutako Goi Mailako Konferentzian, 2015. urtea ezarri zen Europar Batasuneko estatu kideek AGA izenekoa (aurrekontua genero-ikuspegitik aztertzeke metodoa) abiarazteko mugatzat.

Ildo beretik, Lisboako Ituna indarrean hasi zela-eta (2009ko abenduaren 1ean) Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak dokumentu bat onartu zuen: 'Euskadiren lehentasunak Espainiak 2010eko lehenengo seihilekoan izango duen Europar Batasunaren presidentetzaren aurrean'. Dokumentu horretan, aukera-berdintasuna lehentasunez jotzen da gizarte-arloko eredu iraunkorra lortzeko eta "genero-ikuspegia txertatzeko aurrekontu publikoak osatzean, aurrekontuetan definitzen baitira gobernu baten lehentasunak eta hortik arrazionaliza baitaiteke baliabideen erabilera, baliabide horiek eragin parekatuagoa eta bidezkoagoa izan dezaten ahalbidetzeko".

Eusko Jaurlaritzak 2001. urtean izan zuen bere lehenengo esperientzia, Emakundek sustatuta. Gero, 2010. urtean, berriz heldu zitzaion esperientziari, orduko hartan EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Sailaren lankidetzarekin.

Bi ekimenak jarraipen-proiektu gisa sortu ziren; Eusko Jaurlaritzako sail guztiek parte hartzeko diseinatuta eta pentsatuta zeuden, eta, batez ere, sail bakoitzak genero-ikuspegia aurrekontuetan integra dezan, aurrekontuen prestaketa hasten denetik eta prozesu osoan zehar. Baina bietako inork ez du jarraipenik izan, besteak beste Ogasun Sailak ez duelako bere gain hartu proiektu komun bat gidatzeko ardura.

Gaur egun Ogasun eta Finantza Saila denak lehentasuna ematen dio kontu honi, eta beharrezkotzat jotzen du genero-ikuspegia duten aurrekontuak sustatzea, berdintasunaren alde aurrera pausoak emateko zeharkako neurri gisa. Horregatik, dagoeneko hasi da Eusko Jaurlaritzako sail guztiek parte hartuko duten jarraipeneko proiektu bati ekiteko lehentasunezko lan-ildoak ezartzea ahalbidetuko duen lan-egitasmo bat zehazten. Honako hauek dira orain arte egin diren jarduerak:

- 2014ko uztailaren 12an, Ogasun eta Finantzako sailburuaren eskariz eta Emakunderen zuzendaritzapean, saileko politikari guztiekin biltzar bat egin zen, besteak beste AGIak sustatzearen garrantziaren berri emateko. Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko beste erakunde batzuen esperientziak ere erakutsi ziren.



- Biltzar hartan, Ogasun eta Finantza Sailak konpromiso politikoa hartu zuen, Eusko Jaurlaritzako sail guztien partaidetzarekin proiektu komun integral eta aurrerakoi bat gauzatzea ahalbidetuko lukeen metodologia egokiena zehazten hasteko.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan genero-ikuspegia sartzeko proposamen bat prestatzen ari da gaur egun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza.

2015eko Aurrekontu Orokorretako Genero Eraginaren Txostena hobetzeko erronkak:

- Aurrekontuen eraginari buruzko txostena lantzeko prozesua Ogasun eta Finantza Sailak sustatutako AGIen proiektuan txertatzea.
- EAEn emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa egitea ahalbidetzen duten adierazleen zerrenda lantzen jarraitzea. Zenbait adierazleren sintesia eginez zerrenda txikitzea da erronka, informazio garrantzitsuenari uko gin gabe ikuspegi orokorrago bat izateko.
- Gainontzeko sailekin lanean jarraitzea, batez ere berdintasunaren arloko esku-hartze eta jardueretan.
- Aurrekontuen zuzendaritzak agintzen duena sail guztiek garaiz eta behar bezala aurkezteko neurri egokiak ezartzea.

8.- AURREKONTU-PROGRAMEN ERANSKINAK, SAILKA

Eranskina: Lehendakaritza

1. TALDEA	Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.	Programa: 3221
		EMAKUMEARENTZAKO AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA
Arduraduna:	01. LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE	
Helburua:	POLITIKA PUBLIOETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO ETA EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOA GARATZEKO AUKERA AHALBIDERATZEA EDO SUSTATZEA.	
1. ekintza:	Emakumearen Euskal Erakundea diru-baliabideez hornitzea, erakunde hori sortu zuen legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako egitekoak bete ditzan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei babesa emateko eta Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorrean egin beharreko izapideak egiten laguntzeko.	



Aurrekontu-kreditua:	5.823.000,00 €
----------------------	----------------

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	Programa: 1121
		SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	01. LEHENDAKARITZA. LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA / ARAUBIDE JURIKIOAREN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	SAILEAN BERDINTASUN-POLITIKAK BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, ETA ZUZENDARITZA ETA ARLOEKIN LANKIDETZAN ARITZEA, 4/2005 LEGEA ETA BERDINTASUN-PLANA BETETZEKO	
Berdintasuneko helburua	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 11. artikulua agindutakoa betetzea. Artikulu horretan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu beharko ditu, eta horren bidez, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean administrazio-unitate bat egongo da, eginkizun hauek betetzeko: saileko zuzendaritza eta arloak eta hari atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoak sustatzea, koordinatzea eta horiekin elkarlanean aritzea, horrela lege horretan eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun-planean xedatutakoa betetzeko. Unitateok posizio organiko eta harreman funtzional egokia izan behar dute, bai eta beren helburuak bete ahal izateko aurrekontu-zuzkidura nahikoa ere.	
1. ekintza:	Sailaren programazio-agiriak diseinatu eta prestatzea	
2. ekintza:	Berdintasunaren arloko sustapena eta aholkularitza, sailean generoaren ikuspegia sartzeko.	
3. ekintza:	Berdintasun-politiken garapenaren jarraipena egitea eta neurri zuzentzaileak proposatzea.	
4. ekintza:	Solaskidetza tekniko eta koordinazioa Eusko Jaurlaritzan berdintasunaren arloko eskumena duten erakunde, organo eta unitateekin.	
5. ekintza:	Berdintasunaren arloko aholkularitza, identifikazioa eta prestakuntzaren sustapena saileko langileentzat.	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua:		52.674,88 €

3. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berdintasuna sustatzea, diskriminazioei aurre egitea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	1121 programa
		SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	01. LEHENDAKARITZA. LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA/ARAUBIDE JURIKIOAREN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	SAILEAN BERDINTASUN-POLITIKAK BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, ETA ZUZENDARITZA ETA ARLOEKIN LANKIDETZAN ARITZEA, 4/2005 LEGEA ETA BERDINTASUN-PLANA BETETZEKO	
Berdintasuneko helburua	Sailak emakumeen eta gizonen berdintasunerako daukan planeko ekintzak gauzatzea	
Aurrekontu-kreditua, guztira:		5.000,00

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioei aurre egitea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten berariazko jarduerak edo partidak BADIRELA erakusten duten programak.	Programa: 4621
		JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA / BAKE ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA / BIKTIMEN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	BIKTIMAK ETA GIZA ESKUBIDEAK	
Berdintasuneko helburua	Ez da aipatzen	
1. ekintza:	Erakunde pribatuentzako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa, giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko ekimenak burutzeko.	588.600,00 €
2. ekintza:	Udalentzako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa, giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko jarduerak burutzeko.	288.000,00 €
3. ekintza:	Erakundeentzako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak egiteko.	106.250,00 €
Aurrekontu-kreditua		982.850,00 €



1. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)	13.931,91 €
2. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)	7.777,06 €
3. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)	7.656,15 €
Zenbatespena, guztira:	29.365,12 €

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioei aurre egitea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten berariazko jardura edo partidak BADIRELA erakusten duten programak.	Programa: 1311
		KANPO-HARREMANAK
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA / KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARI NAGUSIA / KANPOKO EUSKAL KOMUNITATEAREN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	ATZERRIKO EUSKAL KOMUNITATEAREKIKO HARREMANAK ESTUTZEA, ATZERRIKO EUSKAL SAREA SENDOTZEN LAGUNTZEKO.	
Berdintasuneko helburua	Ez dira aipatzen, baina ondorioztatzen direnak, besteak beste, honako hauek dira: 1. Euskal gizataldeetako emakumeek erabaki-eremuetan duten parte hartzea sustatzea. 2. Pobrezia- eta/edo bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea.	
1. ekintza:	Euskal gizataldeentzako laguntza. 1. Euskal etxeentzako 2013. urteko diru-laguntzak: 1.1.1.- Euskal etxeen funtzionamendu-gastuak eta irabazi asmorik gabeko urteko programa eta jardura zehatzak (IV. kapituluak), honako hauei lehentasuna emanez: • Gazteria. • Emakumea. • Kanpo-irudia eta komunikazioa. • Memoria historikoaren berreskurapena.	742.307,00 €
2. ekintza:	1.1.2.- Euskal etxeen azpiegitura- eta ekipamendu-gastuak (VII. kapituluak), honako hauei lehentasuna emanez: • Katastrofeek eragindako kalteak konpontzea. • Hesi arkitektonikoak kentzea. • Euskal etxeen egoitza berriak eraikitzea. • Gazteentzako guneak egokitzea. • <u>Gazteen eta emakumeen jarduerak aurrera eramateko teknologiak sartzea</u>	30.000,00 €
3. ekintza:	Euskal etxeentzako prestazio ekonomikoak, euskal gizataldeetan premia larrian dauden pertsonen beharrei erantzuteko 2014. urtean.	202.000,00 €
Aurrekontu-kreditua		974.307,00 €
1. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)		9.526,00 €
2. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)		6.084,64 €
3. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)		101.802,86 €
Zenbatespena, guztira:		117.413,50 €

2. TALDEA		Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	"Genero Unitatearen kontsolidazioa"
Arduraduna:		Edurene Bengoetxea (Genero eta Garapeneko teknikaria)	
Programaren helburua		Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian genero-ikuspegiaren zeharkakotzea koordinatzea eta horri jarraipena ematea	
Berdintasuneko helburua		a) Lankidetzatresnetan generoaren zeharkakotasuna txertatzeko irizpideak jartzea. b) Lankidetzatresnetan generoaren zeharkakotasuna txertatzeko metodologia prestatzea. c) Generoari eta garapenari buruzko kontsultei erantzutea eta aholkuak ematea. d) Lankidetzatresnak generoaren ikuspegitik ikuskatzea. e) Genero-politika eta haren planifikazio estrategikoak prestatzea, jarraitzea eta ebaluatzea. f) Generoaren, ahalduztzearen eta garapenaren alorreko tresna espezifikoak kudeatzea. g) Planak eta programak ebaluatzea.	
1. ekintza:		Agentziako Genero Unitatearen urteko ekintzen plangintza definitzea.	
2. ekintza:		Genero-ikuspegiaren eta berdintasunaren inguruko barne-prestakuntza programatzea eta agentziako langile guztien parte-hartzea bultzatzea.	
3. ekintza:		Agentziaren web orrian Genero Unitatearen atal espezifikoak eguneratzea, urtean zehar emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako lanaren berri emanez.	
4. ekintza:		Generoari eta garapenari buruzko glosario bat egitea barruan erabiltzeko, eta, erabakiz gero, agentziaren web	



	orrian jartzea.
5. ekintza:	Komunikazio ez sexistarako protokolo bat prestatzea.
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua:	54.465,36 €

Eranskina: Herri Administrazio eta Justizia Saila

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	1211 programa SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	05- JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURUA	
Programaren helburua	Kabinetearen Zuzendaritzak sailburuari ematen dio [...].Sailburuaren programaren jarraipena egiteaz gainera, saileko sailburuordetzen arteko koordinazioaz arduratzen da, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko politikak sustatzen ditu sailean, eta [...]	
Berdintasuneko helburua	BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATZEA SAILEAN ETA LANKIDETZA ZUZENDARITZEKIN ETA EREMUEKIN, 4/2005 LEGEA ETA X. LEGEGINTZALDIKO BERDINTASUN PLANA AURRERA ERAMATEKO	
1. ekintza:	Berdintasunerako politikak eta planak diseinatzea, lantzea eta sustatzea (VI. Plana eta 2013ko Plana).	
2. ekintza:	Neurriak eta ekintzak proposatzea, eta berdintasuneko arauen, politiken eta planen gaineko aholkuak ematea eta horiek ebaluatzea.	
3. ekintza:	Solaskidetza teknika eta koordinazioa organoekin nahiz unitateekin berdintasun arloan.	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua:		55.000,00 €

3. TALDEA	Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	1412 programa:
Arduraduna:	JUSTIZIAKO ZUZENDARIA	
Programaren helburua	Babes judizial eragingarriaren oinarritzko eskubide bermatzea, Doako Laguntza Juridikoaren mende jarrita ekainaren 19ko 110/2012 Dekretuarekin bat etorrira. Ahalegin hori indartu egin behar da otsailaren 22ko 3/2013 ED Legea indarrean sartu ondoren, doako laguntza juridikoaren onuradun izan daitezkeen pertsonen kopurua areagotu egiten baitu.	
Berdintasuneko helburua	4.DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO LEGEAREN APLIKAZIOA ERRAZTEA, ARRETA BEREZIA JARRIZ ARRETA JURIDIKOKO ETA OFIZIOZKO TXANDA ETXEO INDARKERIA ETA/EDO SEXU ERASOAK JASATEN DITUZTENEI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.	
1. ekintza:	3. Esku-hartzea etxeko indarkeria eta/edo sexu erasoan arloan. a. Legelarien Euskal Kontseiluarekin hitzarmena. a.1. Laguntzak. 4.000	1.111.210€
Aurrekontu-kreditua, guztira:		1.111.210 €

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	1412 programa JUSTIZIA
Arduraduna:	JUSTIZIAKO ZUZENDARIA	
Programaren helburua	2. ORGANO JUDIZIALEI LAGUNTZEA HELDUEN JUSTIZIA PENALAREN ALORREAN, BIKTIMEN ESKUBIDEAK BEHAR BEZALA BERMATZEKO ETA ASKATASUN-GABETZEAZ BESTELAKO NEURRIEN APLIKAZIO MAILA HANDITU AHAL IZATEKO	
Berdintasuneko helburua	EZ DA AIPATZEN	
1. ekintza:	a.3 Tratu txarrak ematen dituztenak berriz hezteko 3 programa, genero-indarkeriaren delituetan gizartearentzako lanak egin ditzaten: 200	265.895,00€



2. ekintza:	2. Gizartearentzat lan egiteko zigorrek betetzeari buruzko eginkizunak betearazi, baita askatasunaz gabetzeko zigorren betearazpena eteteari buruzkoak eta kondena-etete eta segurtasun-neurriei buruzkoak ere. a. Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua. a.3. Tratu txarrak ematen dituztenak berriz hezteko programa gizartearentzat lan egin ditzaten emakumeen aurkako indarkeria delituetan.	803.000,00 €
1. ekintzarako aurrekontu-kreditua, guztira.		186.126,50€
2. ekintzarako aurrekontu-kreditua, guztira.		80.000,00 €
Aurrekontu-kredituaren zenbatespena		266.126,5 €

Eranskina: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	7211 programa
		SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	ZERBITZU ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	Saileko zuzendaritzei, eta sailari atxikitako sozietate publikoei, erakunde eta fundazio publikoei laguntzea, beren helburuak lor ditzaten.	
Berdintasuneko helburua	4/2005 Legean eta X. Legegintzaldiko Berdintasunaren VI. Planean berdintasunaren alde ezarritako neurriak bultzatzea eta haien ezarpena koordinatzea, Sailean eta berari atxikitako erakunde, fundazio eta sozietate publikoetan.	
1. ekintza:	Sailean berdintasuna lortzeko X. Legegintzaldiko urtetarako dokumentu programatikoa egitea, bai eta 2013rako urteko dokumentua ere. Sailean berdintasunerako urteko dokumentu programatikoa jarraipena eta ebaluazioa egitea	
2. ekintza:	Sailean berdintasuna lortze aldera, dokumentu programatikoa Berdintasunerako Administrazio Unitatearentzat aurreikusitako ekintzak gauzatzea.	
3. ekintza:	Saileko Berdintasunerako Lan-taldearekin (SBL) koordinatzea: osoko bilkurak eta alde biko bilerak.	
4. ekintza	Solaskidetza teknika gauzatzea, eta Eusko Jaurlaritzan berdintasunaren arloan dauden egitura tekniko guztietan parte hartzea. • Sail arteko Lantalde Teknikoa • Eusko Jaurlaritzako Berdintasun Unitateen Sarea	
5. ekintza	Sailean arau, politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspuntua sartze aldera, berdintasuna bultzatzea eta horren gaineko aholkuak ematea, genero-inpaktuari buruzko txostenetan berebiziko arreta jarrita.	
6. ekintza	Saileko langileen berdintasun-arloko prestakuntza sustatzea, eta prestakuntza horretan laguntzea.	
7. ekintza	Sailean eskumen-arloetan, berdintasunari buruzko jakinarazpenak egitea eta gai horri buruzko informazioa zabaltzea.	
8. ekintza	Berdintasunari buruzko kontsulta eta eskaera zehatzei erantzutea	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurreikusitako aurrekontu-kreditua: :		57.429,38 €

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten berariazko jardunak edo partidak BADIRELA erakusten duten programak.	7511 programa
		Turismoa
Arduraduna:	Turismo Zuzendaritza	
Programaren helburua	Kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpena zabaldu eta sendotzea (Lehiakortasun Planaren 2.1 ardatza)	
Berdintasuneko helburua	Emakumeen ahalduntzea bultzatzea. Enpresek uztartze erantzunkideko politikak abian jar ditzaten bultzatzea.	
1. ekintza:	Turismo leku eta enpresetan kalitateko eta ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzeko laguntzak. Diru-laguntza % 5 handituko da baldin eta enpresak egiaztatzen badu gutxienez honako hauetako bat betetzen duela: - Emakume batek edo gehiagok enpresaren titulartasunaren gutxienez % 40ko partaidetza izatea, eta/edo emakumeek gutxienez % 40ko ordezkartza izatea enpresaren zuzendaritzako postu eta organoetan. - Lana eta familia uztartzeko plan bat edukitzea.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		



3. TALDEA	Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	7122 programa
		ARRANTZA
Arduraduna: ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA		
Programaren helburua	ARRANTZA ALORREKO PERTSONAK	
Berdintasuneko helburua	Emakumeen ahalduntzea	
1. ekintza:	Emakumeen balorizazioa. Arrantzaren sektorean emakumea erabat integratzeko proiektua egitea.	
2. ekintza:	Prebentzioa eta laneko osasuna hobetzea. Arriskuak prebenitzeko Itsapreben Planaren ezarpenarekin jarraitzea.	
Aurrekontu-kredituaren zenbatespena		340.000 €

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	HAZI
Arduraduna	HAZI	
	EKINTZAILITZA, LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPEN ETA PRESTAKUNTZA UNITATEA	
Programaren helburua	Nekazaritza eta itsasertzeko alor ekonomikoa eta soziala dinamizatzea.	
Berdintasuneko helburua	Emakumeen ahalduntzea	
1. ekintza:	Landa Eremuko Emakumeen Batzordeko Idazkaritza Teknikoa. Landa Eremuko Emakumeen Eguna antolatzea.	
2. ekintza:	Ekintzailitza bultzatu landa eremuetan eta itsasertzean. Saskia proiektua. Emakumeen ekintzailitza.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten berariazko jardunak edo partidak BADIRELA erakusten duten programak.	71110
		NEKAZARITZA ETA LANDA ETA ITSASERTZEKO GARAPENA
Arduraduna:		LANDA ETA ITSASERTZEKO GARAPENERAKO ETA EUROPAKO POLITIKEN ZUZENDARITZA, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA ZUZENDARITZA
Programaren helburua		Bizi-kalitatea hobetzea eta jardun ekonomikoaren dibertsifikazioa sustatzea helburu duten proiektuetarako laguntzak. (Erein Programa).
Berdintasuneko helburua		Emakumeak ahalduntzea enplegua lortzen lagunduta. Uztartze erantzunkidea sustatzea zerbitzuak sortuta.
1. ekintza:	ENPLEGUA SORTZEKO LAGUNTZAK. Enpresak sortuko duen lanpostu bakoitzeko emango den gehieneko dirulaguntza 5.591,88 eurokoa izango da, eta 6.010,12 euro artekoa denbora luzean langabezian egondakoak, familia-zama dituzten emakumeak edo elbarriak kontratatuz gero, beti ere gutxienez bost urteko kontratua egiten zaien bitartean.	
2. ekintza:	Azken batean, helburua da oinarritzko zerbitzuak martxan jartze hori sustatzea. Hala nola, garraioa, gizarte-zerbitzuak, etxeko asistentzia, hezkuntza-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak eta anbulantzia medikalizatuak. Horrez gain, mota guztietako ekipamenduez hornitu nahi dira (kulturalak, sozialak, kirolak, kirolak, asistentziakoak, aisialdikoak...). bereziki nekazaritza-eremuko	



	emakumeen ongizatea, menpeko pertsonena eta gazteena azpimarratuz.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		



Eranskina: Enplegua eta Gizarte Politikak

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	3111 programa ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARIA	
Programaren helburua	9. SAILAREN BERDINTASUN-POLITIKAK SUSTATU ETA KOORDINATZEA	
Berdintasuneko helburua	Sailaren berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzea	
1. ekintza:	Enplegu eta Gizarte Gaietako X. legegintzaldirako Sailaren Berdintasunerako Plan Estrategikoa egitea.	
2. ekintza:	Sailaren 2012ko Berdintasun Planaren jarraipena eta urteko emaitzen ebaluazioa.	
3. ekintza:	Atxikitako zuzendaritzei eta erakundeei berdintasun gaietan aholkularitza emateko saioak.	
4. ekintza:	Sailaren Berdintasunerako Lantalde Teknikoaren koordinazioa.	
5. ekintza:	Solaskidetza teknikoak eta partaidetza berdintasunaren arloan dauden egitura tekniko guztietan, sailen artean eta erakundeen artean. - Sail arteko Lantalde Teknikoa - Erakunde arteko Lantalde Teknikoa - Genero-inpaktuaren ebaluaziorako Lantalde Teknikoa.	
6. ekintza:	Genero-eraginari buruzko txostenak egiteko aholkularitza.	
7. ekintza:	Berdintasunaren arloko komunikazioak, informazioak eta ebatzitako kontsultak	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua	52.979,26 €	

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	Programa LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
Arduraduna:	ZERBITZU OROKORRETAKO ZUZENDARITZA (LANGILEEN ARLOA)	
Programaren helburua	Enplegu egonkor eta kalitatezkoa edukitzeko eskubidea erabat garatzea, hiru alderdi hauek eraginkortasunez bermatzen lagunduko duen lan-merkatu bat antolatzearen alde egiteaz gainera: lan egiteko moduan dauden pertsonak laneratzea, enpresen eskakizunetara egokitutako langile-beharrak estaltzea eta gizarte- eta lurralde-koheretza bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen esparruan agintzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz.	
Berdintasuneko helburua	Berdintasun-plana: Lanbideren berdintasun-politikak sustatzea.	
1. ekintza:	Berdintasun-politikak Lanbiden txertatzeko jarduerak programatu, planifikatu eta ebaluatzea.	
2. ekintza:	Langileei, alorrei eta zerbitzuei aholkularitza eta laguntza ematea emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan.	
3. ekintza:	Berdintasun-politikak sustatu eta garatzeko egiturak koordinatu eta kudeatzea.	
4. ekintza:	Berdintasun-politikak Lanbiden txertatzeko jarduerak programatu, planifikatu eta ebaluatzea.	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua	0 €	

3. TALDEA	Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	3123 programa GIZARTE ZERBITZUAK
Arduraduna:	GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA	
Programaren helburua	1. KALITATEKO GIZARTE ZERBITZUAK SUSTATZEA EUSKO JAURLARITZAREN ARDURA ZUZENKO ALORRETAN.	
Berdintasuneko helburua	Genero-indarkeriaren biktimei arreta ematea.	
1. ekintza:	Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko telefonoa	326.618,00 €
2. ekintza:	Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko laguntza ekonomikoak	1.242.000,00 €
3. ekintza:	Gizarte-langileentzat aholkularitza genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko (kudeaketa integratuaren esparruan).	0000,00
4. ekintza:	Koordinazio-ekintzak Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko (kudeaketa integratuaren esparruan).	0000,00
5. ekintza:	Aplikatibo informatiko partekatua Jauralaritzako sailen artean genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko (kudeaketa integratuaren esparruan).	0000,00
Aurrekontu-kreditua, guztira:	1.568.618 €	



4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	Programa: 3123
		GIZARTE ZERBITZUAK
Arduraduna:	GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA	
Programaren helburua	21. SAREKO LANEAN AURRERA EGIN GENERO-INDARKERIAREN GAJETAN	
Berdintasuneko helburua	Erakunde arteko koordinazioa genero-indarkeriaren gaietan.	
Ekintza:	Erakundeen koordinazio eta lankidetzarako ekitaldietan parte hartzea.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

3. TALDEA	Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	3122 programa
		IMMIGRAZIOA
Arduraduna: FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKARAKO ZUZENDARIA		
Programaren helburua	6. IMMIGRAZIOAREN FENOMENOARI, KULTURA ARTEKO BIZIKIDETASUNARI ETA ANIZTASUN AFEKTIBO-SEXUAL NAHI GENERO NORTASUNAREN ANIZTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	
Berdintasuneko helburua	Emakume immigranteen eta emakume ijitoen ahalduntzea	
1. ekintza:	Jardunaldia, Emakunderen berdintasunerako foroaren barruan	
2. ekintza:	Elkartegintza sendotzea: Elkarreetan ahalduntzeko ekimenetan laguntzea, kanpotik etorritako emakumeentzat.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

3. TALDEA	Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	3123 programa
		GIZARTE ZERBITZUAK
Arduraduna:	GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA	
Programaren helburua	8.- GENERO IKUSPEGIA TXERTATU PLANA OSATZEN DUTEN EKINTZA GUZTIETAN, GENERO DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN.	
Berdintasuneko helburua	Gizarte Zerbitzuei buruzko Plan Estrategikoaren alorreko prestakuntza-planetan berdintasunari buruzko modulu espezifikoak sartzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko I. Plan Estrategikoan garatutako prestakuntza programetan.	
Ekintza:	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko modulu espezifikoak sartzea Gizarte Zerbitzuen I. Planaren esparruan garatutako prestakuntza-programetan.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

3. TALDEA	Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	3123 programa
		GIZARTE ZERBITZUAK
Arduraduna:		GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA
Programaren helburua		16. ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUAK EMATEN ESKU HARTZEN DUTEN PERTSONA GUZTIEI LAN BALDINTZA EGOKIAK EMAN DIEZAZKIETEN SUSTATZEA, INGURUNE IRAUNKOR BATEAN.
Berdintasuneko helburua		Ez da halakorik aipatzen.
Ekintza:		Modulu ekonomiko egokiak eta gizarte-klausulak ezartzea zerbitzuak adosteko eta/edo kontratatzeko, egun



	dauden lan-erregulazioak betetzeko eta zerbitzuak emateko ez ezik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gauzatzeko lan-baldintzak, baldintza profesional eta trebakuntzarako baldintza egokiak ezartzeko ere.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	3122 programa
		IMMIGRAZIOA
Arduraduna: FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKARAKO ZUZENDARIA		
Programaren helburua	4. LGTB PERTSONEI BABESA ETA LAGUNTZA EMATEA, ORIENTAZIOA, AHOLKULARITZA ETA INFORMAZIOA ESKAINIZ.	
Berdintasuneko helburua	Ez da aipatzen	
1. ekintza:	Berdindu: LGTB Orientazio eta Aholkularitza Zerbitzua.	111.000 €
Aurrekontu-kreditua, guztira		111.000 €

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	3124 programa
		FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA
Arduraduna:		FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKARAKO ZUZENDARIA
Programaren helburua		1. FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA
Berdintasuneko helburua		Norberaren bizitza, lana eta familia-bizitza uztartzea.
1. ekintza:	Langileei lana eta familia bateragarri egiteko aukera ematea, adingabeak zaintzeko.	16.811.910 €
2. ekintza:	Mendekotasun egoeran dauden senitartekoak zaintzeko eszedentziak eta jardunaldi murrizketak.	255.438 €
3. ekintza:	3 urtez azpiko adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatik laguntzak	255.438 €
4. ekintza:	Bateragarritasun erantzunkidaren 2014ko programa.	62.000 €
Aurrekontu-kreditua, guztira		17.384.786 €

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	3212 programa
		GIZARTE EKONOMIA
Arduraduna:	GIZARTE EKONOMIAKO ZUZENDARIA	
Programaren helburua	GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZAK	
Berdintasuneko helburua	Ez da aipatzen	
Ekintza:	Kolektibo jakin batzuk gizarte ekonomiako enpresetara bazkide gisa biltzeko laguntzak. Ez dira aurrekontu-memorietan zehazten, baina emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak aplikatzen dira, genero-indarkeriaren biktimentzat eta guraso bakarrak direnentzat.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	4312 programa
		ETXEBIZITZA
Arduraduna:		ETXEBIZITZAKO SAILBURUORDEA
Programaren helburua		
Berdintasuneko helburua		Ez da aipatzen
1. ekintza:	Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza: Genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzaren adjudikazio zuzena. Ezin da aurreratu honen kostea, ez dakigulako eskaera egongo den ala ez. Hala ere, azken	



	urteetan egon den bezala, nolabaiteko gastua egongo dela aurreikusten dugu.	
Aurrekontu-kreditu identifikatu gabea		

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.	3211 programa
		ENPLEGUA
Arduraduna:		PLANGINTZAKO ETA ENPLEGU BERRIKUNTZAKO ZUZENDARIA
Programaren helburua	6. PARTEHARTZEA, LANKIDETZA	
Berdintasuneko helburua	Ez da aipatzen	
